



TAMAYO ERRAZQUIN, José Ángel

Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel Lardizabal 2
20018 Donostia
joseangel.tamayo@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 14; 65-83]

Sarrera eguna: 2005.04.26
Onarpen eguna: 2005.09.22

Mos gallicus edo Humanismo juridikoaren bi ordezkari: Denis eta Jacques Godefroy

(*Mos gallicus* or two representatives of the Juridical Humanism: Denis and Jacques Godefroy)

Jacques Godefroyek, Denis semeak, garaiko unibertsitate humanista garrantzitsuenetan burutu zituen bere ikasketak. Aita eta semea, Zuzenbide irakasle eta Antzinateko obra klasiko askoren konposatzaile eta argitaratzaile izan ziren. Aitari zor diogu Justinianoren Corpus Iuris Civilis-en argitalpena, eta semeari oraindik erabilgarria den Codex Theodosianus-en lehenengo berrosaketa eta edizioa. Irakaskuntza, historia lokala eta kritika politikoari ere ekin zioten, garaiko beste humanisten antzera, beraiek ezarri baitzituzten geroko pentsaera zientifikoaren hastapenak.

Giltza hitzak: Jacques Godefroy. Denis Godefroy. Humanismoa.

Jacques Godefroy, hijo de Denis, se graduó en diversas universidades de tradición humanística de la época. Tanto el padre como el hijo se convertirían en profesores de Derecho y compositores y editores de obras clásicas. Al padre le debemos una muy utilizada edición del Corpus Iuris Civilis, y al hijo la reconstrucción y edición del Codex Theodosianus que sirve aún de instrumento de trabajo para los especialistas. Se dedicaron también a la actividad administrativa en puestos de responsabilidad, a la historia local y a la crítica política, al estilo de lo que ocurría con otros humanistas. Ellos plantaron las bases del futuro pensamiento científico.

Palabras Clave: Jacques Godefroy. Denis Godefroy. Humanismo.

Jacques Godefroy, fils de Denis, obtint son diplôme dans diverses universités à tradition humaniste de l'époque. Aussi bien le père que le fils devinrent professeurs de Droit et compositeurs et éditeurs d'œuvres classiques. Nous devons au père une édition du Corpus Iuris Civilis très utilisée, et au fils la reconstruction et l'édition du Codex Theodosianus qui est encore utilisé comme instrument de travail par les spécialistes. Ils eurent également des postes de responsabilité dans l'administration, se consacrèrent à l'histoire locale et à la critique politique, de la même façon que d'autres humanistes. Ils posèrent les bases de la future pensée scientifique.

Mots Clés: Jacques Godefroy. Denis Godefroy. Humanisme.



1. **Erljio-gerrak Europan:** 1.1. Erljio-gerren kausak. 1.2. *Cuius regio, eius religio* printzipioa. 1.3. Hogeita hamar Urteko Gerra. 1.4. Westfaliako Ituna. 2. **Humanismo juridikoa:** 2.1. Glosagile eta glosagileondokoen jarduera eta *ius commune*-aren harrera Erdi Aroan. 2.2. Humanismoa eta Eliza katolikoaren aurkako Erreforma. 2.3. Humanismo juridikoa. 2.4. Laburbilduz. 3. **Geneva, erreforma eta humanismo juridikoaren babesleku.** 4. **Denis Godefroy:** 4.1. Denis Godefroyren bizitza. 4.2. Denis Godefroyren norabide zientifikoa. 4.3. Denis Godefroyren obrak. 5. **Jacques Godefroy:** 5.1. Jacques Godefroyren bizitza. 5.2. Jacques Godefroyren norabidea. 5.3. Jacques Godefroyren obrak. 6. **Ondorio gisa.**

1. Erljio-gerrak Europan

1.1. Erljio-gerren kausak

Jakina, XVI. eta XVII. mendeetan aspaldidanik zetozen sekulako tentsio sozial eta politikoak lehertu ziren Europa osoan zehar. Mende bat aurretik deskubritutako lur berriak kolonizatu eta ustiatzen ari ziren. Baina, gaur egun frogatu denez, hortik ateratako etekinak ez ziren askotan deskubritzaileen eskuetara pasa, edo, pasa eta gero, galdu egin ziren, zenbait bitartekarien hatzaparretan (bankari italiar eta holandarrek gehienbat) edo zulo ezezagunetan. Gainera, itsasoaren gaineko nagusitasuna kolokan zegoen espainiar, ingeles eta holandarren armaden arteko tirabiren artean. Sakro Inperio Erromatar Germanikoa une ahul batean zegoen. Elizaren kreditua hiritarren artean oso eskasa zen, haren ustelkeria han-hemenka agertzen zenez. Apaiz eta fraide arruntek gero eta abandonatuagoa zeukaten Jesukristoren doktrina. Ez behe, ez goi mailako apaizei, ez omen zitzaien zelibatuari izan beharko litzaiokeen errespeturik sumatzen. Lurralde gehienak goi mailako elizgizon simoniarikoz josirik zeuden. Herri apalaren gainean etengabeko esplotazioa ari zen suertatzen (Vatikanoko Jauregiaren eraikuntzaren aldeko zerga bilketa, gradu ezberdinetako bulen salmenta, printze eklesiastikoen abusuak, etab.). Eliza guztiz loturik agertzen zen kredoari eta munduari buruzko interpretazio eskolastiko estu bati, unibertsitateetan haren eragina guztiz nabaria zenez, etab. Eta, horren guztiaren gainetik, turkoen inbasioaren presioa Ekialde eta Hegoaldetik. Espainiako eta Italiako hirietako itsas armadei esker, bazegoen oraindik Mediterraneo Itsasoko uretatik nabigatzerik. Baina itsasoko giroa ez zen baretasun txuri horietako bat. Beraz, handik eta hemendik, benetako panorama kaskarra.

Horren aurrean, Europa gehienez zehar, hirietako berpizte bat sumatzen ari zen. Hirietako garapen hau aspalditik zetorren. XII. mendean piztutako hedapen urbanoaren ondoren, antzinako erromatar galtzadak berpiztu zirenez, merkantziak han-hemenka hasi ziren, gorputz batean odola zirkulatu denaren antzera. Dena berpizten, birjaiozten, lorifikatzen ari zen. Merkantziekin batera, ideiak ere hasi ziren zirkulatu. Halere, 1492an gertatutako Konstantinopla hiriburuaren eroriadik beste beldur berri bat ekarri zuen europarren aurrera: turkoen inbasioaren arriskua. Baina, honez gainera, beste ustekabeko fruitua ere ekarri zuen: Bizantzioren eroriadirekin batera, handik ihesean ateratako jakintsu askoz osatutako inbasio kultural eta pazifikoa. Antzinaroko Kultura Klasikoaren berria zekarten filosofo, jurista, arkitecto, sendagile eta abar handi baten uholdea ari zen mutur guztietatik, eta Italiatik bereziki, hedatzen. Paradoxikoki, Bizantzioren suntsidurak Europako Errenazimendua ekarri zuen. Baina, horretarako, noski, behar-beharrezko oinarri ekonomiko eta sozialak finkaturik egon beharko ziren. Eta Europa, jadanik, prest zegoen.

Honek guztiak ematen zuen XVI. mendeko Europak ez zuela tentsiorako eta liskarretarako besterik balio. Nahiz eta ekonomiak, maila orokorrean, sekulako hedakuntza materiala izan, ondasunak ez zeuden batere ongi banatuak, eta sekulako aldeak bereizten ziren. Lur aristokrazia alde batetik, eta hirietako burgesia bestetik. Klase edo estamentu baten eta bestearen artean, ez zegoen ia konponterik. Nobleziarentzat, odolak ematen zion gizakiari zegokion lekua gizartean. Burgesiarentzat, berriz, lanak eta aurrerapenak dira, eta ez besterik, gizarte bati osasuna eta zoriona ematen diotenak, hauen ztat besteak alfer galantak besterik ez baitziren. Dakigunez, polemika hau ez da XVI. mendean bertan garbituko. Soluzioa bi mende geroago etorriko da, burges iraultzarekin batera. Baina esan daiteke hemendik hasi zela bideratzen.

Beste aldetik, bazegoen beste banaketa sakonago eta krudelago bat. Noblezia –noblezia eliztarra horren barne– eta nekazarien artean nabaritzen zena, alegia. Errege absolutua guztiz finkatu gabe zegoen garai hartan, eta hirien indarra errealtate bat izan arren, ez zen feudalismo sistema momentuz desagertu. Nekazaria lurriari eta jauntxoei lotzen zieten lehengo usadioak indarrean ziren oraindik. Aspaldidanik zetorren gauza bat zen. Nekazari xumeak jauntxoari behetik gora egiten zion so, egoera normal batean zegoela onartuz. Ez zitzaion bururatu ere egiten gauzak beste bide batetik joan zitezkeenik. Baina handik gutxira hasi ziren, hirietan sortuta gehienbat, kontestazio mugimenduak eta predikazioak. Jesukristok esandakoari kasu egin behar zitzaion. Goi mailako Noblezia eta Eliza ez ziren haren benetako enxeplurik ematen ari. Guztiz alderantziz baizik. Hori zen predikatzaileek ziotena.

XVI. mendean, Noblezia eta Elizaren boterea ukiezina zen oraindik. Baina haiek eragindako presioa eta isuritako harrokeria nonbaitetik lehortu beharko ziren. Europako historian zehar askotan gertatu dira leherketak; gehienbat, erlijioak utzitako zirrikitu bat aprobetxatuz. Hasieran milenarismoa izan zen. Geroago, beti izan da Erromako Elizaren kontrako erasoren bat. Ekar dezagun gogora, besteak beste, valdestarren mugimendu heretikoa¹. Baita geroago Johannes Wiclefek ermandakoa ere². Eta, gure garaitik hurbilago kokatuz, husitarren matxinada³. Hauek guztiek, eta aipatu ez ditugun beste batzuek ere, zenbait oinarri zituzten komunean. Erromako Elizaren autoritatearen ukapena, sakramentuen efektu osansungarriak eztabaidatzea, elizgizonen bizimoduaren kontrako kritika zorrotza, Elizaren aberastasunaren salaketa, Nobleziaren aliatu bezala zuen paperaren eta haren gupidarik gabeko esplotazioaren aurkako altxamendua, eta, honen guztiaren oinarrian, Sinesmena aitzakiatzat harturik (Kristautasuna kasu honetan) Kristok esandakoa berreskuratu eta elementu idelogikotzat esplotatzaile eta jauntxo guztien aurka oposatzea. Honen arabera, Jesukristok egiatan esandakoa segitzeko eskubidea aldarrikatzen zen. Eta, horretarako, noski, iturburu garbietan eta zuzenetan edateko libertatearen beharra sumatzen ari zen edonon. Honen guztiaren ondorioz, erreklamatzeko zen ere kristau bakoitzak testu sakratuetan irakurri eta ulertzeko izan beharko lukeen gaitasuna onartua ikusi ahal izatea.

Noblezia, Eliza eta Estatuen interesak beste bide guztiz diferenteetatik zihoazen ordea. Elizari zegokiona, batasun espirituala zen. Baina haien muturren aurrean leher egin zuten Erreformek. Nobleziari eta Estatuei zegokiena, batasun tenporala zen, eta betiko usadioak mantentzea. Baina berehala sortutako gerrek –arrazoi erlijioso, ekonomiko, sozial edo dinastikoengatik– gaindiezinezko muga bat ezarri zuten.

Gerra hauek diferenteak izan ziren. Gehienbat, Konfederazio Germanikoaren lurraldeetan kokaturik zeuden printzerri, erreinu, elektoregune laiko eta eklesiastikoak, eta han ziren beste hainbeste estatu txiki ikutu zituzten. Baina, horrez gainera, Europako estatu gehienak izan ziren bertan inplikaturik, hala nola habsburgota-

ren Sakro Inperio Germanikoa eta hari nolabaiten loturik ziren hainbeste estatu (Bohemia, Moravia, Silesia etab.), Holanda, Ingalaterra, Danimarka, Suedia, Frantzia, Saboiako Erresuma, Konfederazio Helvetikoa, Espainiako Inperioa eta haren sateliteak, etab⁴.

XVI. mende gehienean zehar, Herbehereen eta Alemaniaren inguruan eztabaidak izan ziren. Bi estatu handiren interesek egin zuten topo horietako lehenengoan. Espainiarenak alde batetik –lurralde horienganako eskubideak Karlos V.ak transmititu egin zizkion bere seme eta ondorengo zen Felipe II.ari–, eta Frantziarenak bestetik. Interes dinastikoen azpitik beste gerra bat ari zen egosten. Itsasoaren kontrolagatik Ingalaterra, Holanda eta Espainiaren artean etengabe burutzen ari ziren itsas-liskarrarena alegia. 1566. urtean gertatu zen Herbehereetako altxamendu hura. Handik gerora, ez zuen Espainiako gudarosteak kasik atsedenk izan, isolaturik geratu baitzen. Azkenean, bake-ituna sinatzera behartua izan zen.

Alemaniak, beste aldetik, Lutero Aita Santuaren kontrako errebolta burutu zenez gerotik, ez zuen une lasai bat ere ezagutu Westfaliako Ituna sinatu arte. Handik honuntza bertan gertatutakoak, milioikako bizilagun zuloa egin zuen. Batzuek diotenez, Alemaniak gerra horietan jasandakoak ez zuen parekorik izan Bigarren Mundu Gerran sufritutakoa ikusi arte. Bertatik sortutako porrot ekonomikoa, beherakuntza demografikoa eta banaketa politikoa, asko kostata lortuko zuen gainditzea. Baina denborak pasa beharko zuen horretarako.

1.2. *Cuius regio, eius religio* printzipioa

Luterano eta katolikoen arteko erlijio-gerra horiek Ausburgoko Bakea (1555) sinatzearen bitartez eman ziren agortutzat. Bake honek garrantzi handia izango zuen printzipio bat ezarriko du, *Cuius regio, eius religio* printzipioa, alegia. Honen arabera, estatu edo lurralde bateko printzearen sinesmenak derrigortu egingo du lurralde horren bizilagunen sinesmena. Hau da, estatu bakoitzaren subditoek haien estatuburuaren sinesmenari so egin beharko zioten. Praktikan aplikaturik, printze, errege edo lurraldeburuaren

1. Vaux-eko Pedro, edo *Valdo* edo *Valdez*, bizitza pobrea eramateko ondasun guztiak utzi zituen Lyongo merkataria bat zen. Elizaren aberaskeria eta haragikeriaren kontra predikatu zuen. Haren jarraitzaileak *Lyoneko pobreak* edo *valdestarrek* izenez ezagutzen ziren.
2. Wiclef Ingalaterrako parrokia bateko parrokia zen XIV. mendean. Zenbait obra idatzi zituen hierarkia eklesiastikoaren kontra, hierarkia eklesiastikoa eta haren ondasunak soberan zirela argudiatuz.
3. Juan Hus, Pragako Unibertsitateko irakasle eta erretoe izandakoa zen. Bere aurrekoen antzera, kolokan jarri zituen Elizaren hierarkia eta aberastasuna. Berak suspertutako mugimendu heretikoaren azpian arrazoi sozial eta politikoa ere baziren. Husitarren adar erradikal batek sistema sasikomunista bat eraiki zuen Tobar hirian, nahiz eta haien komunismoa kontsumukoa izan, eta ez produktiboa.
4. Suedian, esate baterako, Estokolmoko Gudaroste Inperialaren Museoa bisitatuko bagenu, sarreran agerian izango genuke tabloi antzeko bat, Suediak izandako gerrak azaltzen dituena. 1521 eta 1814 artean ez zen 48 gerra baino gutxiagoan sartu. Hau da, 293 urtetan 154 urte izan zen gerran, eta 139 bakean. Ez da marka makala, alajaina! BURKHARDT, J. *Der Dreissigjährige Krieg*, 9.

sinesmenarekin ados ez zeudenak hanka egin eta desterru bidea hartu beharrean ziren. Helmuga, batzuetan, gertu ziren beraien sinesmenkideen hiri edo lurraldeak ziren; bestetan, paradisu antzeko bat eskaintzen zuten beste lurralde misteriotso ezezagunak. Amerika gehienbat.

Printzipio honen ondorioak nahiko latzak bilakatu ziren. Alde batetik, populazioaren joan-etorriak. Beste aldetik, jende honek, finkatzen ari zen hirietan, sortzen zituen tentsio politikoak, eta haien kanporaketarekin batera eramandako gorroto eta mendekuaren nahia eta amorrua. *Cuius regio, eius religio* printzipioak beste ondorio bat ere ekarri zuen. Emigranteen eta elizatik kanporatutakoen ondasunen konfiskazioa. Estatuetakoa printze eta jende nagusi askok lurralde, monasterio, jauregi eta nahi gabe abandonatutako hazien da aberats asko bereganatzeko gogotsu zeuden. Eta haienak propioak ez ziren ondasunez nagusitu ziren. Fenomeno hau, noski, ez zen Alemanian bakarrik gertatu. Frantzia (hugonoteen espulsiorekin eta, horiekin batera, gure historiaren protagonista den Denis Godefroy ere) eta beste herrialdeetan (Bohemia, Moravia, Konfederazio Helvetikoan, Habsburgotarren Inperioan... batez ere), antzeko fenomenoak suertatu ziren.

Eztabaida erlijiosoa ez zen batere konpondu halere. Indar berri bat, Kalbinismoa, edonon zabaltzen ari zen. Sinesmen hau, luteranismoa eta ebanjelismoa baino askoz zorrotzagoa eta etsaiagoak tratutan jartzeari zegokionez, benetako hedapen bat ari zen somatzen Europa osoan, askotan luteranoen kontra borrokatuz. Frantzia (hugonoteak), Konfederazio Helvetikoan, Holandan, Ingalaterran, Ipar Europan eta baita Konfederazio Germanikoan ere.

Dakigunez, Kalbino izan zen doktrina honen buru eta asmatzaile. Bere bizitzak paralelismo handia izan zuen Godefroytarrenarekin (Dionisio), geroago ikusi ahal izango dugunez. Frantsesa bera ere jaiotzez, Filologia eta Zuzenbide ikasketei ekin zien Orleans (Filologia) eta Bourgeseko (Zuzenbidea) Unibertsitateetan –gero ere Jacques Godefroyek Zuzenbidea ikasiko zuen Unibertsitate berberetan–. Hizkuntza klasikoetan espezialista ere bazen, eta, garaiko humanismoan murgildu, eta goiz samar Senekaren *De Clementia* obra klasikoari buruzko azalpen bat idatzi zuen. Bibliaren irakurketari ekin zion berehala. Baina irakurketa hori ez zuen Elizak eskainitako itzulpen ofizialean burutu, liburu sakratu hura idatziriko jatorrizko hizkuntzetan baizik, greziera klasikoan gehienbat.

Ikusten denez, *cuius regio, eius religio* printzipioak ez zuen bakerik ekarri. Aitzitik, esan daiteke aspaldidanik ziren tentsio sozial, erlijioso eta politikoak areagotu egin zirela. Horrela, Frantzia hugonote eta katolikoan arteko tentsioak biziagotu, eta San Bartolome Gau (1572) ilun hartan lehertu ziren hugonoteen gainean sekulako pertsekuzioa bultzatuz⁵. Ez zen hau istilu bakarria izan. Etorri ziren besteak han-hemenka etengabe. Baina estatuen printzeen sinesmena aldatzearena izan zen ekarri zuen ondorio politikorik zatarrena –aldaketa hori benetakoa edo interes politikoarengatik egindakoa bazen ere–. Sinesmena aldatze horien seinalerik sintomatikoarena, Palatinadoaren Elektorearena izan zen –ematen du honek Protestanteen Ligaren gidaritzari nahi zuela–. Hau dela-eta, Hogeita hamar Urteko Gerrarako lurraldeak izan ziren...

1.3. Hogeita hamar Urteko Gerra

Esan dugunez, gerra honetan eragin handia izan zuen Palatinadoaren Federiko III.aren konbertsioak. Honen ondorioz, Heidelberg kalbinisten hiriburu bihurtu eta beste estatuetako emigratu asko jaso zituen. horien artean, Christian Anhalt-Bernburg printzea, denboraren poderioz Goi Palatinadoaren gobernadorea bilakatu (1595) eta kalbinismoaren erradikalizazioan zerikusitua izango zuena. Honek akuilaturik, sinesmen berriak txikitzeko Habsburgotar eta Aita Santuaren artean koalizio bat martxan zegoenaren iguruan notizia faltsuak zabaltu ziren. Argudio hau erabiliz, Ingalaterra, Holanda eta hugonote frantsesen arteko batasun bat bilatzeko urrats asko eman ziren, nahiz eta helburu hori ez beti lortu izan⁶. Nolabait, hauek dira gerran izango ditugun bandoak: Batasun Ebanjelikoa, protestanteen aldetik, eta Liga Santua, katolikoan aldetik.

Ez da nire helburua Gerra nahasi eta korapilatsu honen gorabeheren berri ematea. Baina gutxienez zenbait notizia eman beharrean aurkitzen naiz, gure bi jurista ospetsuak beren ingurumen naturalean ikus ditzagun. Dakigunez, gerrak kausa asko izan zituen; gehienbat erlijiosoak, baina horien azpitik arazo sozialak eta interes politikoak nabarmenki agertzen ziren. Besteren artean, aipatu beharrekoa da Itzultze Ediktua (1629) ekarri zuena. Esan den bezala, katolikoak espulsatuta izan ziren Estatuetan sekulako espulsioprozesuak gertatu ziren, askotan bertako estatuburuak bultzaturik. Beraz, ondasun abandonatuak –abandonatuak ez baziren ere, abandonatutzat eman ziren harrapatzaileen aldetik– bereak

5. Handik gutxira, Nafarroako Enrike, katolizismora pasa ondoren, Frantziako errege izendatua izan eta gero (1588), kulture askatasunaren berme bilakatu zen, Nantesko Ediktua (1598) emanaz.

6. PARKER, G. *La Guerra de los Treinta Años*, London-New York, 1984; Bartzelona, 1988; 52. or.

egin zituzten. Inperioko buru zen Fernando III.a enperadorearen Itzultze Ediktuak nahi zuena hori zen bereziki: lehendik Elizari eta Noblezia katolikoari lapurtutakoa itzultzera behartzea. Ediktu honen kontra hasi ziren Estatu erreformatuak matxinatzen⁷.

Benetako mundu gerra baten aurrean gaudela esan genezake dudarik gabe, zeren eta guda gehienak Alemanian, Bohemian eta Austrian gauzatu izan arren, konfliktoa muga guztiak gainditu eta itsasora eta Ameriketara pasatu baitzen. Diplomazia XVI. mendean jaio berria zegoen, denboraren poderioz finkatuko zen eta jurisdikzio pontifikala baztertuko zuen enbaxadore iraunkorren sistema italiarra oinarritzen ari zen oraindik, eta gerra honek sekulako egurra suposatuko zuen sistema berbererako. Sistema honek enbaxadoreen egoitzaren eta korrespondentziaren bortxa ezintasuna aldarrikatzen zuen. Nahiz eta horrela izan, enbaxadoreen korrespondentzian hizkuntza zifratuen erabilpena ohikoa zen oraindik⁸.

Hans Jacob Christophel Grimmelshausenek, literatura barroko alemaniarren eredutzat hartzen den *Abenteuerlicher Simplicius Simplicissimus* obra idatzi zuen. Haren nobela, *Rinconete y Cortadillo*, *El Lazarillo de Tormes* eta hauen antzeko literatura pikaresko jenerokotzat hartzen da. Esan beharra dago Grimmelshausenek berak Hogeita hamar Urteko Gerra nahi eta nahi ez bizi behar izan zuela. Familia bateko seme hau gazte zela bahitu zuten, eta soldadu bezala bizi behar izan zuen gerra gehiena. Simplicius, haren nobelaren protagonista, garai hartako Alemania populatzen zuten bando guztietan eta mota eta jite guztietako jauntxo zein gudalburuen zerbitzuetara egon zen, liskarretan murgilduta zegoela eta gertatutakoaren kazetari bilakaturik. Gerra basati horretan, nazio ezberdinetako eta bera bezala bahitutako nekazari, gaizkile edo fortuna-saldadua ari ziren parte hartzen. Behin, lapurretan ari ziren soldadu kroaziar batzuek harrapatu zuten. Beste batzuetan, soldadu suediarrek, espainiar, alemanak edo frantsesak izango dira. Mutur guztietatik lapurreta eta bortxakeria. Dena su eta gorroto. Simpliciusen –hortik bere izena– ez du amarrukeriarik, ez dago berengan ezta gaiztakeria izpiririk ere hasiera batean. Kristok esandakoarekin izan zen hezitua. Hala eta guztiz ere, bere inguruan dena da gaiztakeria, maltzurkeria, zatarkeria. Esanik ez, hau izango dela bere eskola definitiboa, eta bide horretatik aritu-

ko dela bera ere, lapur eta gaizkile bihurtuta. Godefroytarrak eta beraiek bezalako beste jakintsu asko murgiltzen ari ziren garaiko humanismoa guztiz abandonaturik zegoela ematen zuen. Mundu teoriko eta praktikoaren artean zer nolako aldea!

Mundu guztia harrapatu zuen gerra zatar hau, gupidarik gabekoa izatez gainera, luze-luzea izan zen. Jakina, fase ezberdinetatik pasa zen. Eta fase bakoitzak atzerritarren esku sartzea adierazten du. Lehenbizi, fase bohemiarra (1618-1625). Bigarrenik, fase danimarkarra (1625-1629). Hirugarrenik, fase suediarra (1630-1635). Eta laugarrenik eta azkenik, fase frantse- sa (1636-1648).

1.4. Westfaliako Ituna

Westfaliako Itunak bake itun multzo bati ematen dio izena (Pirinioetako Bakea, Münster, Osnabrückeko Akordioak, etab.). Lehendik zetorren *cuius regio, eius religio* printzipioa mantendu egingo da, eta baita berari loturik zihoazen ondorio guztiak ere (populazioaren desplazamenduak, etab.). Bakearekin Habsburgotarren boterea amaitzen da, eta eszizio erlijiosoa finkaturik suertatuko da. Alemaniak, beste bi mende barru arte gutxienez, ez du batasunik ezagutuko. Lurralde banaketak garrantzizkoak izango dira, gehienbat Frantzia eta Suediaren alde. Espainiak galdu egingo du –inoiz izan bazuen bederen– itsasoaren gaineko nagusitasuna. Izan ere, European, eta batez ere Alemanian, liskarrak sorturiko zauriak sakonak eta denbora askorako izango ziren. Esan ohi da II. Mundu Gerrara arte Alemaniak ez zuela honenbesteko txikiziorik ezagutu. Frantzia, berriz, garaile azalduko da, eta bere helburua –hau da, Konfederazio Germanikoa banandua mantentzea– lortu zuen nolabait. Horregatik, XIX. mendeaz geroztik, zenbait talde nazionalista aleman saiatu zen –geroago Versaillesko “Diktat” famatuarekin egin zuten bezala– Westfaliako Bakea haien intereserako esplotatzen. Esan ohi da ere bake honekin, edo akaso bakea baino lehenago, *raición d’Etat* izenez ezagutzen den politika egiteko modu berriak inposatu zirela interes konfesionalen gainetik, bake mundialaren mesederako. Westfaliako Bakeaz geroztik, sinesmen zurruntasunkeriak gero eta baztertuagoak uzten direla ematen du.

Esparru beldurgarri honetan irauko du humanismo juridikoaren mugimenduak.

7. Ediktu honen promulgazio egunean, bere kopia asko inprimatu ziren, Estatu guztian zehar bana zitezten. Gaur aurkitutako horien kopia batean, baten batek horrela idatzi zuen eskuz: *Radix omnium malorum*, hau da, kalte guztien kausa. PARKER, G. op. cit; 149. or.
8. SANZ CAMAÑES, P. *Diplomacia hispano-inglesa en el siglo XVII. Razón de estado y relaciones de poder durante la Guerra de los Treinta Años, 1618-1648*. Cuenca: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 2002; 20. or.

2. Humanismo juridikoa

2.1. Glosagile eta glosagileondokoen jarduera eta *ius commune*-ren harrera Erdi Aroan

Bera ez zela hizkuntza klasikoetara boterez edo harrokeriaz hurbildu zioen Erasmok. Jaungoikoa loriatzeko eta bere aintza kantatzeko asmoz baizik. Horrela bada, eta hala izan ez dadin ez dago inongo argudiorik, badugu Humanismoaren garaian sinesdunek ur gardenetako iturburuetara jotzeko aitzakia bat. Egiaren beharra eta egarria⁹.

XI. eta XII. mendeetan gertatu zen Zuzenbide erromatar-kanonikoaren hedapena Europa mendebaldean. Esan dezagun fenomeno hau arrazoi batzuegatik sortu zela. Lehenik, Europa horren premian zegoelako. Bigarrenik, Eliza Katoliko baten existentziak, eta berak suposatzen zuen muga fisiko eta espiritualetan gabeko tresnak, horretara bideratu zuelako. Hirugarrenik, aurkikuntza zientifikoek horretara lagundu zutelako –horien artean, Digestoaren aurkikuntza Zuzenbide erromatarrerako eta *Decretum Gratiani* argitalpena bilduma Zuzenbide kanonikorako–. Laugarrenik, unibertsitateen fundazioak suertatu zirelako, eta bertan *ius commune* irakasteari ekin zitzaielako –sortutako Zuzenbide eskolen artean Boloniakoa da famatuena eta eragin korrena, baina aipatu beharrekoak dira beste asko ere¹⁰–. Bosgarrenik, garaiko Estatuetak printzeek jurista horien premia zutelako –*ius commune* horrek, zuzen-zuzenean aplikatu baino, bertako ordenamendu juridiko lokaletan azaltzen ziren hutsuneak estaltzeko balio zuen, eta baita ere arauak interpretatu ahal izateko–. Esan dezagun garai hartan Europako mutur guztietan estudianten zela Zuzenbide erromatarrez eta Zuzenbide kanonikoz osatutako *ius commune* hau. Ikasketa plangintza antzekoa zen unibertsitate batzuetan eta besteetan. Eta bertatik sortutako graduatuak, bai espirituz, bai letraz, eskola berberetakoak ziren¹¹.

Bi hitzetan: Europak, Zuzenbide erromatarra eta Zuzenbide kanonikoa uztaurik, eta Zuzenbide feudaletatik hartutako zenbait instituzioren, *ius commune*-a osatu zuen. Zuzenbide kulto, zientifiko eta subsidiario bat. Baina, horrez gainera, juristen Zuzenbide bat. Zuzenbide europar bat¹².

Erdi Aroko glosagile eta glosagileondokoen eskola juridikoen ondoren, beste eskola juridiko berri bat sortu zen Europan: Humanismo Juridikoarena. Honela, lehengo *mos italicus* zena, *mos gallicus* bihurtu zen. Eta Frantzia izan zen mugimendu juridiko honen harrera-leku. Beraz, Errenazimenduak bultzatutako eta *mos gallicus* izenez ezaguturiko mugimendu juridiko honen helburu nagusia, klasikoen benetako iturburu garbietara jotzea izan zen. Hau da, humanistek eskuratutako testu juridiko historikoak beste modu batean irakurtzea proposatzen zuten. Metodo filologiko eta historiko bat, alegia.

Honi loturik, aipatu beharrekoa da garaiko Humanismoak ikasketa filologikoarekiko zeukan amorru berezia. Han-hemenka, testuen irakurketa jatorrizko hizkuntzetan proposatzen zuten kolegio hirueledun asko fundatu ziren. Hauen artean, Alcalá, Salamanca, Lovaina eta Parisetakoak ziren ezagunenak. Denbora bat igarota, kolegio hauen eta zuzeneko irakurketa proposatzen zutenen aurka teologo eskolastikoak altxatu ziren. Hauek ere, Santo Tomas eta beste arrazionalismoa erdi abandonaturik, humanismoaren bidetik jo zuten. Baina hau beste kontu bat da.

Eskola eta unibertsitate hauetan aritu ziren jurista humanisten artean, aipatu beharrekoak dira *Alciatus* italiarra –aitzindarietako bat–, *Zasius* eta *Haloander* alemanak, *Donellus*, *Cuiacius*, *Faber* eta *Gothofredus Zaharra* edo Denis Godefroy frantsesak, *Augustinus* espainiarra eta *Gothofredus Gaztea*, *Jacobus*, edo *Jacques Godefroy* suitzarra¹³.

Antzinateko kultura tradizionalaren gordailua Eliza zen, dudarik ez. Garaiean sorturiko aldakuntza tekniko eta ekonomikoek esker, hiri boteretsuak sortu ziren. Hiri horiek benetazko hortz bihurtu ziren garaiko merkataritzaren mekanismoan. Boloniako Unibertsitateak, eta baita Montpellier, Toulouse eta beste batzuek ere, jurista laikoaren figura bultzatu zuten. XI. eta XII. mendeetako glosagileek, garaiko Zuzenbide positiboarekin ezer gutxi ikusterik zuten Zuzenbide bat bultzatu zuten. Lege feudalek, usadioek eta hiri-estatuaren ordenamendu juridikoek ziotenetik guztiz aparte zen Zuzenbide bat. Digestoaren aurkikuntzarekin, testua hartu zen ezagupen juridikoaren abiapuntutzat.

9. AUBENAS, R.; RICARD, R. "El Renacimiento". In: Fliche, A.; Martín, V. *Historia de la Iglesia*, Valentzia: Edicep, 1978; 17 eta 263 orr.

10. Paduakoa (1222), Napoleskoa (1224), Turingoa (1405) italiarren artean; Montpellier (1260), Avignon (1256), Tolosa (1229), Orleans (XIII. mendearen erdialdean) eta Angersekkoa (1356) frantsesen artean; Salamanca (1218), Valladolid (XIII) eta Leridakoa (1300) Espainian; Coimbra (1290) Portugalen; Praga (1347), Viena (1365), Heidelberg (1385), Kolonia (1388), Leipzig (1409), Lovaina (1426), Krakobia (1364), Kopenhage (1478) eta Upsalakoa (1477) Europako iparraldean. COING, H. *Derecho privado europeo*, Madril: Fundación Cultural del Notariado, 1996; 1, 35 eta 36 orr.

11. COING, H. op. cit.; 1 eta 31 orr.

12. COING, H. op. cit.; 1 eta 63 orr.

13. TXURRUKA, J.; MENTXAKA, R. *Zuzenbide erromatarraren sarrera historikoa*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994; 269. orr.

Benetako jurista ez zen arazo partikular eta konkretua soluzionatzen zuena, testua zuzen interpretatzen zuena baizik. Ematen zuen jurista hark teoria hutsaren aldera joko zuela. Eta neurri batean horrela izan zen. *Corpus Iuris* bilduma goraiatu zuten, estasiraino. Teologoentzat Biblia zena, juristentzat *Corpus Iuris*-a izango da. Liburu sakratu bat. Eta eginbehar honetan, arrazionalismo aristotelikoa eta filologia aplikatu zituzten¹⁴. Halere, beraiek burututako lanak eta adierazitako jarrera positiboak ate bat zabaldu zioten Zuzenbide berri bati. Glosagile hauen artean, azpimarratu beharreko juristak dira Akursio (*Magna Glossa*-ren egilea) eta Irnerio.

Geroan datorren beste jurista uholde, glosagileondoko edo komentaristek (XIV-XV), Boloniako Unibertsitateak iraun arren, aplikazio praktikoko baten alde jo zuten. *Corpus Iuris*-aren hitzak eguneroko praktikara eramaten saiatu ziren. Boloniarantz abiatu ziren jurista gazte asko (*bolonioak*), Europako gorte askotatik –horien artean, Nafarroako erresumatik–. Haien itzultzearekin, Zuzenbide erromatarra zabaldu egin zen jaio berri ziren estatu hauetan guztietan. Testua –*Corpus Iuris* delako bilduma horretan latinez azaleratzen zena–, beraz, ez da hemendik aurrera fenomeno teoriko huts gisa hartuko, balio praktikoa duen tresna modura baizik. Era berean, Zuzenbide erromatar eta Zuzenbide kanonikoaren artean eszizio bat gertatuko da. Esana da Zuzenbide erromatarra *ius commune in temporalibus* izango dela, eta Zuzenbide kanonikoa *ius commune in spiritualibus*¹⁵. Bai glosagileek, bai beraiek, *Corpus Iuris*-i buruz eginiko interpretazio honi egungo Zuzenbide partikularren esperientzia (Zuzenbide feudala, ohiturazko Zuzenbidea eta garaiko Italiako hiri-estatuetakoko Zuzenbideak) egokitu nahi izan zioten. Glosagileondoko guztion artean, bat azaltzen zaigu nagusiki: Sassoferatoko Bártolo (“inor ez da jurista, ez bada bartolista”)¹⁶.

2.2. Humanismoa eta Eliza katolikoaren aurkako Erreforma

XVI. mendean, Errenazimenduarekin batera, Humanismoaren korrante kulturala jaioko da. Elizak ez zuen hasiera batean mugimendu hau begi onez ikusi, ezarritako sistema asko kolokan jartzen zituelako, eta printzipio eskolastikoen eta eraikitako zein xedatutako egia eztaba daezin

askoren kontra azaltzen zelako. Erasmo bat, esaterako, nahiz eta Eliza katolikoari zion leialtasuna sekular dudatan jarri ez, beti egon zen garaikideen susmopean, eta haren jarraitzaile askok Inkisizioaren pertsekuzioa jasan behar izan zuten. Hau dela-eta, Humanismoak protestantisismoan –kalbinismoan bereziki– hartu behar izan zuen babesleku.

Erreforma, hala ere, hiru zutabetan zegoen oinarrituta: fede bidezko justifikazioan, apaizgo unibertsalean eta Biblian oinarritutako hutsezintasunean. Lehengoaren arabera, kontuan izan beharko genuke Erdi Aroaren bukaeran Mendebaldeko Europak jasan zuen krisialdi espiritual hura. Fededunak bekatuaren beldurraren pean bizi ziren, eta Eliza Ofizialak ez zien segurtasunik ematen. Gainera, ematen ari zen errexplua ez zen Elizaren eginbeharrarekin bat etortzen.

Bigarrenaren arabera, apaizgo tradizionalaren deskreditua edonon zegoen hedatua, bai goi mailako apaizgoarena –askotan ez zegoen printze sekular baten eta gotzain baten artean bereizterik–, baita behe mailako apaizgoarena ere –apaizen pobretasunak sakramentuak saltzera bultzatzen zituen askotan, baina bestetan ez zen pobretasun aitzakiaren beharrik sinesdunei lapurtzeko–. Sakratua eta profanoa, dena zurrumbilo batean nahasturik zegoen. Eta, horrez gainera, mendebaldeko Eliza zisma bat sufritzen ari zen. Basileako Kontzilioa ari zen bitartean, husitek honelako kartela zintzilikatu zuten hiriko eliza baten atarian: *Zergatik egiten die Jaungoikoak kasu gehiago zekenkeriaz, haragikeriaz eta luxuz jantzirik dauden apaiz batzuen otoitzei?*

Eta, hirugarrenaren arabera, aipatu beharrekoa da liburu sakratuaren hedadura. Inprentari esker, liburuaren iraultza sortua zen. Jendea hasia zen Jaungoikoaren esanetara zuzen-zuzenean joanez. Ez zen horretarako Eliza burokratiko baten premiarik ikusten. Eta justu une horretan eman zen argitara Luteroren Biblia. Intentzio osoarekin alemaniera erraz batean idatzia –Lutero berak latina, greziera eta hebraiera ikasteari ekin zion Bibliaren zuzen-zuzeneko itzulpena egin ahal izateko–. Genevako batek horrela zioen inprentari buruz: *Duquel nous recevons au temps present tel fruit qu'il n'y a chose en terre, en mer, aer, feu ni celeste ni terrestre que ne nous soit mise devant les yeux, voire en language de toutes nations*¹⁷.

14. CANNATA, C. A. *Lineamenti di Storia della giurisprudenza europea*, Torino: Giappichelli, 1980; 2 eta 15 orr.

15. CANNATA, C. A. op. cit.; 26. or.

16. TXURRUKA, J.; MENTXAKA, R. op. cit. 268 eta 269 orr.

17. TRIPET, M. “Bonivard et les livres”. In: *Mémoires et Documents de la Société d'Histoire et d'Archéologie de Genève*, LVII, Genève, 1995; 363. or.

Hau guztia dela-eta, kristauak segurtasuna eskaini zieziaiekeen eliza batengana hurbiltzeko presti ziren. Sakramentuak saltzen zituen hierarkia eklesiastiko ustel hura kolokan jarri zuten. Bide berri horretatik abiatzeko huts egin ezin zezakeen autoritate sendo baten bila aritu ziren. Honetarako, Biblia tresna gisa prestatu zen, eta herriak uler zezakeen hizkuntza batean eman zen. Zentzu horretan, beharrezko laguntza da mugimendu humanistikoak emandakoa. Humanistek garbitu zuten, nolabait, bidea, nahiz eta haiek lana eliza baten edo bestearen alde egin ez izan. Azken finean, bai Erreforma, bai Kontraerreforma, Humanismoaren aurka jarri ziren. Baina honek aldaketaren kandela piztua zuen ordurako¹⁸.

2.3. Humanismo juridikoa

Beraz, aurreko juristek, glosagile eta glosagileondokoek alegia, *Corpus Iuris* bilduma sakratu eta definitibotzat hartu zuten. Jurista humanisten-tzat, berriz, Justinianoren bilduma, beste aztarna askoren artean, Erromako aztarna bat besterik ez zen. Beste garai historiko batean kokatutako herrientzat asmatua zenez, haren balio praktikoa XVI. mendean bizi zirenentzat guztiz diskutigarria zen. Antzinateko testu haiek mirestekoak ziren jurista erromatar haien teknika zorrotzarengatik. Baina ez zuten mugiezinezko egia sakratu bihurtu behar. Are gutxiago glosagile eta glosagileondoko-en eskuetatik pasa eta gero. Hauek, *Corpus Iuris* bildumaren transmisio testua oker aukeraturik –*Littera Bononiensis Littera Florentina* ordez–, eta zentzu historikorik gabeko glosa eta komentarioez baliaturik, greziera jakin gabe eta latin ustel batez armaturik, baliorik gabeko liburu bat sakralizatu zuten. Humanistek, berriz, sekulako garrantzia eman zioten trebetasun filologiko eta historikoari. Aurreiritzirik gabe hurbildu ziren iturrietara. Justinianoren beraren konpilazioan aurkitu zituzten zenbait anakronismo eta zentzugabekeria. Hara non jaiotzen interpolazio eskola! Deskubritu zuten Tribonianoren batzordeak erabilitako testu klasiko asko manipulatuak gertatu zirela, eta jurista klasiko-koen esanahia aldatua izan zela, inongo errespeturik gabe. Triboniano, bere juristen batzordea eta

Justiniano bera, errudun deklaratu zituzten. Haiek bultzaturiko trukaketa eta mistifikazioaren aurka liburu asko idatzi ziren. Esan daiteke *antitribonianismus* baten aurrean ginela¹⁹. Humanistek ez zuten “apaiz arrote eta kulturagabe” horiekin inongo gupidarik izan²⁰.

Ez da harrizkoa, beraz, humanistak garai honetan, *Corpus Iuris Civilis*-etik kanpo, Antzinateko eskuizkribu askoren aurkitzaile bilakatzeari, eta aurkitutako horien editore bihurtu izatea. Horrela egin zen, esate baterako, *Tituli ex corpore Ulpiani*-arekin²¹, *Consultatio veteris ciuiusdam iurisconsulti* bildumarekin²², *Collatio Mosaicarum et Romanarum legum*-arekin²³. Lehendik ezagutzen ziren Justinianoren aurretiko zenbait iturri ere argitaratu ziren: *Pauli sententiae* eta *Epitome Gai*²⁴, *Lex Romana Visigothorum*²⁵. Eta beste iturri batzuk berreraiki egin ziren. Horien artean, Jacques Godefroyek *Codex Theodosianus*-aren eginiko berreraiketa, edizioa eta berari atxikitutako komentarioak²⁶. Saiatu ziren Pretorearen Ediktuen berreraiketa bat ere egiten²⁷. Eta jurista erromatarren idazkien lan palingenesikoak ere burutu ziren²⁸. Baita iturri ez juridikoei buruzko ikerkuntzak eta zenbait obren argitalpenak ere. Honen ondorioz, humanistek zuzen-zuzenenan juridikoak ez ziren iturrietatik jasotako material asko eraman zuten beren interpretazio lanera, argudiaketa juridiko jardueran erabili ahal izateko. Hau dela-eta, esan daiteke beren portaera benetan entziklopedikoa izan zela²⁹.

Egia esan, korrante humanistaren aitzindari bezala gehiago aurkituko ditugu literato, filologo eta filosofoak juristak baino. Horien artean, Francesco Petrarca (1304-1374). Bere obran, erdi aroko jurisprudentziaren kontrako hasierako zartadak aurki daitezke. Ambrogio Traversari, Niccolò Nicoli, Maffeo Vegio eta, batez ere, Lorenzo Valla (1407-1457). Honek, lexiko juridikoari buruzko aipamenez osatutako *Elegantia Latinae Linguae* obra idatzi zuen. Filologo izan arren, bera izan zen *Pauli sententiae* obra juridikoarekin lan egiten hasi zen lehena. Baina, horien gainetik, beste filologo bat aipatu beharrean nago: Angelo Poliziano (1454-94). Bera da *Littera Florentina*-rekin lanean hasi zen lehenetako bat. Hark utzitako notak eta

18. DELUMEAU, J. *La Reforma*, Bartzelona: Labor, 1976; 5. or.

19. HOTMANek *Antitribonianus* (1567) idatzi zuen. Beste askok beste honenbestekorik egin zuten.

20. KOSCHAKER, P. *Europa y el Derecho romano*, Madril: Editorial Revista de Derecho Privado, 1955; 167. or.; GUZMÁN, A. “Introducción”. In: Domingo, R. *Juristas Universales*, Madril: Marcial Pons, 2004; 2 eta 27 orr.

21. Jean du Tillet gotzainak lehenengo aldiz argitaraturik (1549).

22. Loiselek eskuizkribu zaharra aurkitu eta Kuiazusek argitaratu (1576).

23. Pierre Pithou (1573).

24. Biak Pierre Gilles (1517); *Pauli sententiae* bildumaren beste argitalpen berri bat Kuiazusek (1586).

25. Johannes Scharid (1528).

26. Bere bizitzaren obra izan zenez, postumotzat argitaratu zen (1665).

27. Stephanus Perraeus (1564), Guillaume Rachin (1597), Hubrecht van Giffen (1612) eta Jacques Godefroy (1653).

28. Jacques Labitt (1557); Antonio Agustín (1579).

29. GUZMÁN, A. op. cit. In: Domingo, R. op. cit.; 2 eta 32 orr.

iritzi kritikoak oinarrizko material bihurtuko dira geroko juristentzat. Eta, zerrenda honi amaiera emateko, beste filologo bat: Guillaume Budé (*Budaeus*), Bourges Unibertsitatearen fundatzailea eta *Anotationes in quattuor et viginti Pandectarum libros* liburuaren egilea³⁰.

Ikus daitekeenez, lurra jorratua zegoen jadanik, nekazari trebeak lehenengo haziak zabal-tzen has zitezten. Hazi hartatik etorriko da geroko juristen loratzea. Beraz, juristen ordua iritsia zen. Baina, nahiz eta aipatutako aitzindarien artean italiarrak nagusiztat kontsideratuak izan, ez zen Italia Humanismo juridikoarentzat lur aproposa bilakatu. Humanismo juridikoaren lehenengo jurista, Andrea Alziato (*Alciatus*, 1492-1550), Alziato Italiako Alzaten jaio zelako, oraino *ius commune*-ari lotutako jakintsu hau, metodo filologiko-historikoa aplikatzen lehenengoetakoa izan zen. Bere lana ez zen ongi hartua izan berea zen Italia hartan, eta Frantziara joan beharrean aurkitu zen. Han, Budék eraikitako Bourges Unibertsitate humanistan babestu, eta haren irakaskuntzak eta jakinduria barreiatzeko bidean jarri zen. Bere obra aberatsean zehar, geroagokoentzat balio handikoak bilakatu ziren elementu asko aurki daitezke. Obren artean, hauek izango liriateko aipagarrienak: *Paradoxa iuris civilis*, interpretazio legalari buruzkoa, *Dispunctiones*, *Vulgatan* diren testu grekoak azaleratuz, *De verborum significatione*, *Commentarii ad rescripta principum*, eta *Emblematum libellus*, azken hau bizio eta bertuteei buruzko esaera latino askorekin. Alziatoarengan bat egiten zuten Humanismo juridikoaren ezaugarri nagusiek; hau da, trebetasun filologikoak, zirra-ra historikoak eta konpromiso juridikoak³¹.

Hemendik aurrera, beste jurista asko eta askok hartuko dute honen errenka. Beste askoren artean, eta Frantzian bereziki: François Hotman (*Hotomanus*), François Baudouin (*Balduinus*, 1520-1573), Jacques Cujas (*Cuiacius*, 1522-1590), Hugues Doneau (*Donellus*, 1527-1591), eta Denis Godefroy. Baina ez zen Humanismo juridikoa Frantzian zokoratuta gelditu; Europa osoan zehar zabaldu zen. Alemanian, Ulrich Zasius (*Zasius*, 1461-1535) eta Gregor Haloander (*Haloandrus*, 1501-1531); Espainian, Agustín (*Augustinus*, 1517-1586); Suitzan, Jacques Godefroy; Holandan, Arnold Vinnen (*Vinnius*, 1588-1657), Ulrik Huber (1636-1694), eta Hugo Grozio (*Grotius*, 1583-1645), beste askoren artean.

Jurista hauen guztien ezaugarri aipagarrien artean, hauek ditugu batzuk: esan bezala, haien interes filologiko eta historikoa, Erdi Arokoen kontrako kritika zorrotzak –haien obrak irainez josirik daude: astoak, barbaroak, arloreak, usaintsuak, zerriak, hutsak,itsuak, nazkagarriak, faltuak eta horrelako beste honenbesteko loreak³²–, iturrietara jotzearen premia, haien interes pedagogikoa –haiek unibertsitatei eskaintako dedikazioan froga daitekeenez³³–, argudiaketa juridikoari buruzko kezkek, sistema juridikoaren aldaketara bideratutako lanak –Erdi Aroko sistema baztertuz, eta Zizeron eta besteek azaldutako sistematologia aukeratuz–, gai historikoen aldeko interesa, eta, era berean, haien lurraldeetako historia bat prestatzeko borondatea –Alziatok Milango Historia konposatuko du, Godefroy Gazteak Genevako Historia–, eta Zuzenbide nazional bat sortzearen aldeko saioak –paradoxi-koki, humanistak Justinianoren *Corpus Iuris Civilis* kontra zuten prebentzioa dela-eta, eta *droit coutumier* eta beste jatorrizko eta erromatarrek ez diren iturrietan oinarrituko dira Frantziarako Zuzenbide nazionala bultzatzeko³⁴–.

2.4. Laburbilduz

Esana da erreformatzaileak bultzatzen zituzten arrazoi nagusiak Jesukristoren benetako dotrina segitzea zela, eta horren ondorioz Idazki Sakratuen iturrietara jo nahiean aritu zirela. Hau dela-eta, parekotasun handia dago erreformatzaileen eta jurista humanisten artean. Haiek eta hauek, hizkuntza klasikoetan zuten iaiotasunaz baliatu ziren (greziera, latina, hebraiera...), egia aurkitzeko saio horietan. Jurista humanistek jurista eskolastikoei erabiltzen zuten latin zatar eta usteldua kritikatu zuten, eta baita kritikarik gabeko iturriak onartzeko joera ere. Bai erreformatzaileek, bai jurista humanistek, liburu-eredu bat bultzatu zuten. Erreformatzaileentzat Itun Zaharra eta Itun Berria jasotzen zituen *Vulgata* izenez ezagutzen zen eta San Jeronimok VI. mendean itzulitako eta Eliza Katolikoak bertsio ofizialtzat onartutako Biblia ez zen batere fidagarria. Era berean, jurista humanistentzat *Littera Bononiensis* edo *Vulgata*-ren bitartez ezagutzen zen *Corpus Iuris*-a ere ez zen fidagarritzat jotzen, eta horren orde zatorrizko testuen irakurketa zuzen, historiko eta filologikoen bidez, beste Obra, beste *Littera*, beste *Vulgata* aurkitzen saiatu ziren, eta lortu egin zuten.

30. GUZMÁN, A. op. cit. In: Domingo, R. op. cit.; 2 eta 29 orr.

31. RODRÍGUEZ OCAÑA, R. "Andrea Alciato". In: Domingo, R. op. cit.; 2 eta 147 orr.

32. Kuiaziok honela zioen bartolistei buruz: *verbosi in re facili, in difficili muti, in angusta diffusi*; Rabelaisek (*Gargantua et Pantagruel*) Bourgesen ikasi ondoren, horrela zioen: *La Glose de Acurse, est tan salle, tant infame et punaise, que ce n'est que ordure et villenie*. KOSCHAKER, P. op. cit.; 172 n. 19.

33. Alemania eta Italian ikasleen manifestazioak bildu ziren Bártoloren sistemaren alde eta humanisten metodoaren kontra. Haren metodoa irakasle humanistei derrigorrean inposatzea erreklamatzeko zuten. KOSCHAKER, P. op. cit.; 173. or.

34. GUZMÁN, A. op. cit. In: Domingo, R. op. cit.; 2 eta 33 orr.

Erreformatzailiek Elizako gotzain gorenaren autoritateaz eztabaidatzen zuten era berean, jurista humanistek jurista adozenatu eta mediebalen teknika erroildua kritikatzeko zuten. Haien benetako Jesukristoren dotrina ezagutu eta jarraitu nahi izan zuten, hauek Justiniano eta klasikoen benetako dotrina juridikoa ezagutu eta jarraitu nahi izan zutenaren antzera³⁵.

Hau guztia kontuan izanik, humanistek Zuzenbideko praktika juridikoan izandako eragina oso eskasa izan zen. *Mos italicus*-ek juristen Zuzenbide bat bultzatu zuen. *Mos gallicus*-aren interesa guztiz zientifikoa zen; iturrietara hurbiltzen baziren ere, ez zen balio praktikorik aurkitu nahian, baizik eta gozamen kultoarengatik. Humanistek ez zitzaizkien praktika batere interesatu. Beraiek bultzatutako Zuzenbidea, jakintsuen eta pertsona kultoen Zuzenbidea zen. Zuzenbide entziklopediko bat, ez Zuzenbide praktikoa bat. Irakasleen Zuzenbide bat, eta ez juristen Zuzenbide bat³⁶.

Hau dela-eta, nahiz eta paradoxa eta kontrarian bat iruditu, humanistek jakintza humanistikoa hori haien unibertsitateetan itxi zuten. Zuzenbidea kultura bakan batzuen gauza bilakatu, mugatu egin zuten unibertsitatearen eragina gizarrean. Ez zuten ulertu Zuzenbidea ere, edo batez ere, jendeari laguntzeko tresna bat dela. Honela uler daiteke Zuzenbide nazional bat sortzeko unean unibertsitateak guztiz bazterturik geratu izana³⁷.

3. Geneva, Erreforma eta humanismo juridikoaren babesleku

Ulegarri egingo zaizkigu honez gero Erreforma eta humanismo juridikoaren artean dauden loturak. Geneva XVI. mendean bilakatu zen Erreformaren hiriburua. Bertan elkartu ziren Europako nazioetatik bidalitako apostata, heretiko, luterano, hugonote eta abar. Kalbinok eman zion hiri honi zuten nortasun berezia. Goiko pasarte batean esan den bezala, Kalbino ere, beste erreformatuek asko bezala, hiritik pasia zen. Lehengo aldiari hiriaren bizitza politikoa eragin handia zuen Perrindar familia katolikoaren aurka jarri zenez, alde egin behar izan zuen. Baina Perrindarren eragina eta botere katolikoaren indarra ahuldu zirenean, Kalbino deitua izan zen berriro. Bertaratu bezain azkar, lehendik ereindako ideia teologiko-politikoak

zabaldu eta finkatu zituen. Haren zurruntasuna Genevako arautegian azalera zen nolabait. Eta bertan biltzen zen goi mailako intelektualitatearen laguntzaz, bere Akademia fundatu zuen.

XVI. eta XVII. mendearen lehengo erdian, Geneva, beste hiri asko bezala, merkatariz, mota askotako lanbideetako profesionalen eta bankariz osatutako hiri txiki bat zen. Bazuen nekazarien ingurumen bat. Ingurumen honetako biztanleek buruhauste galantak sortu zizkieten hiriko burgesei, katoliko jatorrak baitziren. Italia, Alemania eta Frantziaren arteko leku estrategikoa batean kokatuta zegoenez, bere garrantzi komertziala ez zuen inork zalantzan jartzen. Baina, garaiko beste hiri askoren antzera, bere pisu demografikoa oso ahula zen. 1615ean, esate baterako, 16.000 biztanle besterik ez zituen. Populazio kopurua ez zen batere egonkorra. Errefuxiatuen etorrerak, gerrek, ekonomiaren beherakadak, eta, batez ere, izurri-teen, egongaitz bihurtu zuten hiriko demografia. Adibidez, 1615ean 16.000 biztanle bazituen, hogeita hamar urte geroago, 1654ean, 12.300 biztanle besterik ez zituen izango³⁸.

Bururatzeko zaigun galdera da nola ote den posible hain interesgarria ematen zuten leku estrategikoa hori inguruko Estatuaren inbidia eta nahietatik aparte mantendu ahal izatea. Nola ote den posible Geneva hark hiri-estatu independente moduan jarraitzea. Geneva, beste hiri-estatu asko bezala, printze baten boterearen pean zegoen. Saboiako dukeek gobernatu zuten gehienbat gotzain baten bitartez. Baina independentzia lortu zuenean —kontuan izan dezagun Konfederazio Helvetikoan ez zela berehala bameratuko—, independentzia hori mantendu ahal izan zuen. Alde batetik, bere defentsari esker —bere harresiak eraikitzeko lanetan eta mantenuan hiri osoak hartu zuten parte, baita erreformatuek ere—, besteak beste inguruko estatu erreformatuek lagundu zutelako, eta, beste aldetik, Frantziak, Saboiatarren hedapenaren kontra zenez, behin baino gehiagotan, neurri batean edo bestean, parte hartu zuelako. Botere askoren interesen artean izateak horrelakoak dakartza. Egonkortasunaren orde, kristalezko independentzia bat.

Saboiatarrek behin eta berriro setiatu zuten hiria, behin eta berriro bere independentzia arriskuan jarri. Genevak Liga Erreformistaren eta kantoien ebanjelikoen laguntza izan zuen. Eta baita Frantziarena ere. Lehenbizi, Enrike IV.arena (Nantesko ediktuaren egilea), eta, ondoren, baita Richelieu, Mazarino eta Luis XIV.arena ere.

35. STEIN, P. G. *El Derecho romano en la historia de Europa*, Madril: Siglo XXI de España Editores, 2001; 108. or.

36. KOSCHAKER, P. op. cit.; 180. or.

37. KOSCHAKER, P. op. cit.; 188. or.

38. FATTO, O. "Genève au temps de Jacques Godefroy". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. *Jacques Godefroy (1587-1652) et l'Humanisme juridique à Genève: actes du colloque Jacques Godefroy*, Bâle: Faculté de Droit de Genève-Bâle, 1991; 19. or.

Azken finean, Frantzia zelai zabaloagoan jokatzeko ari zen, eta nahi ez zuena zen espainiarren aliatuak bere atariaren aurrean finkatzea. Beraz, esan genezake Genevaren independentzia antzeko indarra zuten bi potentzia babesle izateari zor zaiola –bakar baten babespean izan balitz, bestea izango zen historia, seguraski–. Lortzerik ez zuena, kantoi katolikoek ezetza zela medio, Konfederazio Helvetikoan sartzea zen³⁹.

Kalbinoren eraginez eman zen Genevan hiri honek ezagututako aldaketarik handiena. Hemendik aurrera ezarriko dena zera izango da: izaera teologikoak pozoindutako benetako eraentza edministratibo-politikoak. Hiria bizitzan sekula ezagutu gabeko ikaragarriko zurruntasun batera jo zuen. Helburu hori lortzeko tresna, hiriko Ordenantza Eklesiastikoak izan ziren.

Kalbino, legegizon baten semea eta bera ere legegizona, Noyonen jaio zen, 1523an. Aita, burgesa eta zenbait onura eklesiastikoren onuradun, eta anaia bat eskumikatuak suertatu ziren. Hamalau urte zituela, ikasketak egiteko asmoarekin Noyondik Parisera abiatu zen, justu mugimendu humanista Frantziako hiriburuan zabaltzen hasia zen unean. Mathurin Cordierrek latina erakutsiko zion. Montaigu kolegioan diziplina aszetikoa praktikatzuz, gero eta etsai beldurgarria bilakatuko duen dialektika ezagutuko du. Latina eta bereganatutako diziplina hori arma bihurturik, Antzinateko idazle klasikoek irakurketari ekingo zion. Gorago esan den bezala, goi mailako ikasketak Orleans eta Bourgeseko Unibertsitatean burutu zituen. Harrigarria bada ere, ez zituen Teologia ikasketak aukeratu. Horren ordez, ikasketak juridikoak aukeratu zituen (Zuzenbide zibila eta Zuzenbide kanonikoa). Han Alziato eta Melchior Wolmar irakasleak ikaslea izan zen. Azken honi zor dio Kalbinok greziar hizkuntzarekiko interesa. Han bertan hasi zen greziera eta hebraiera estudiantzen. Kultura filologikoa, kultura juridikoaren gainean jartzen du. Berrito Parisera itzulita, Budé jakintsua ezagutzeko aukera izango du. Han bertan emango du argitara bere lehenengo obra: Senekaren *De Clementia*-ri buruzko iruzkin erudito bat. Obra hori konposatzean, Erasmok handik gutxira argitaratutako Senekaren obraren edizioaz baliatu zen. Erasmo eta beste humanisten eragina eztaba daezina da.

1533an, Pariseko Unibertsitateko Nicolas Cop errektoreak kurtsoaren sarrerako hitzaldia eman zuen. Ematen du hitzaldiaren egile edo, gutxienez, partaideetako bat Kalbino izan zela. *Sola Dei gratia peccata remittit...* zioen hitzaldiak. Beraz, sekulako polemika eta zarata piztu zuen hiri osoan. Pariseko Parlamentua errektorearen

atzetik joan zen, eta honek, eta baita Kalbinok ere, alde egin behar izan zuten. Handik gutxira, Nafarroako Margarita erreginaren laguntzaren bitartez, Parisera itzultzeko eta handik Nerac aldera joateko aukera izango du. Handik aurrera, Basilea, Italia eta Frantzia artean ibiliko da.

1536-1538 artekoa izan zen Kalbinoren lehenengo egonaldia Genevan. Katolizismoa ustelkerian murgilduta zegoen, axolagabeko gotzain baten gidaritzapean. Kalbinok Eliza erreformatuaren dotrina predikatu eta herriak irudiak erre eta meza abolitzea lortu zuen. Ordurako idatzia zeukan bere *Institution chrétienne* obra famatua.

Institution chrétienne obra, Francisco I.aren kontra idatzia zegoen. Hori leporatzen zaio erreformatzaileen kontra amorrua piztea Frantzian. Erregeak zioen erreformatu frantsesak ez zirela bere fedez jazarriak, baizik haien traizio politikoak. Horren kontra azaldu zen Kalbino. Bere mundu ideologiko guztia obra horretan hustuta dago. Bertan biltzen dira egilearen ideiarik garrantzitsuenak: fedearen bidezko salbazioarena, Eliza unibertsal baten beharrarena, predestinazioarena, etab. Eliza katolikoak orain arte egia absolututzat izan dituen zenbait adierazpen erasotuz: sakramentuak (bataioa eta jaunartzea salbu), meza, hierarkia eklesiastikoa, etab.

1541ean Kalbino Genevara itzuliko da, eta haren Ordenantza Eklesiastikoak onartu eta indarrean jarri arren, hasieran moderazioz arituko da. Oligarkiaren burujabetza bat bultzatuko du, eta lehenengo usadioetatik zetozen zenbait batzorde aristokratiko ezarriko ditu: sindikoak, Konsistorioa (aginte erlijiosoak) eta kontseiluak (Kontseilu Txikia, 60 Laguneko Kontseilua, 200 Laguneko Kontseilua). Postu hauetan hiriko burgesiaren begizko pertsonak jarriko ditu. Ez du herri xumea bertan izan nahi. Horrez gainera, haren Eliza Unibertsala eta kontseilu hauen artean independentzia bermatzea lortuko du. Kontuan izan dezagun Kalbino burutzen ari zen Erreforma mundu guztira zuzendua zela, eta ez Genevara soilik. Etorrinen etorrera kontrolatu egiten du, frantsesak faboratuz –genevatarrak Kalbinoren kontra matxinatzen zirenean, atzerritarren kontra eta, batik bat, frantsesen kontra ere matxinatzen ziren–. Elizaren baitan artzain-predikatzaileak sortuko ditu, eta horietaz baliatuko da Kalbino –komisario politikoek gisa– bere aginduak indarrean jar zitezen. Halere, Kalbino eta Kontseiluen artean tentsio uneak bizi izango dira behin eta berrito. Bazirudien Kalbino eta kontseiluen arteko furrustada horien ondorioz Kalbino izango zela galtzaile aterako zena, baina azkenean ez zen horrela gertatu, eta frantses etorkinen laguntzari esker, garaile irtengo da

39. FATTO, O. op. cit.; 22. or.

1555ean. Handik aurrera ez du trabarik izango bere politika teokratikoa indarrean jartzeko⁴⁰.

Lehengo batean esan den bezala, Servet zientzialari jakintsuak bere biziarekin ordaindu zuen Hirutasunaren dogmaren aurka atera izana. Egia esan, fama handiko Servet mediku ospetsuak dudatan jartzen zuen Hirutasunaren misterioa *Christianismi restitutio* obra idatzi eta argitaratzearekin. Horregatik zebilen katolikoengandik ihesi. Eta ez zitzaion beste gauzarik okurritu, Genevan babestea baino. Justu Kalbino bere *Ordenantzak* aplikatzen ari zen momentuan (1553). Preso hartu eta su eman zioten. Ez zuten bere ideia heretikoengatik zigortu, baizik eta baretasun soziala arriskuan jartzeagatik⁴¹.

Suaren mingainakadak merezi zituen beste "heretiko" bat, Giordano Bruno dugu. Hau Genevan errefuxiatu zen. Bellarmino inkisidorearen aurrean egindako adierazpenean, Brunok esan zuen "askatasunean bizitzeko" babestu zela Genevan. Beraz, bera bezalako espiritu librean aterpe bihurtu zen Geneva hura⁴².

Ez da hau Kalbinoren ideiak argitara emateko lekurik egokiena. Bera izan zen humanista asko eta asko biziko ziren hiria altxatuko zuena. Eta, horien artean, Godefroytarrek batik bat. Hau da hona ekartzeko arrazoi bakarra. Bere beste lorpen bat, Akademia fundatzea izan zen (1559). Hark fundatutako Akademiarekin batera jaioko da Genevaren mitoa. Akademia izango da garai hartako humanista horien kokagune eta altxorra. Haren metodoa exegesi eta azterketa filologikoan zetzan. Antzinateko iturri sakratuak beste ikuspegi batetik begiratzen hasiko da. Erromako Elizaren dogmekin zerikusi gutxi zuen ikuspegitik. Akademiak emango zuen formazio teologiko, humanistiko eta juridikoak jende asko ukituko zuen, eta mundu osoan zehar sekulako eragina izango du.

Akademiatik pasa ziren garaiko irakasle ospetsuenen artean, Théodore de Bèze dugu lehenengo errektorea, Hotmann jurista, historialari, filologo eta humanista ospetsua, Doneau edo *Donellus, mos gallicus*-aren partaide ezagunentariko bat, Jules Pacius de Beriga, Jacques Lect,

Denis Godefroy eta Jacques Godefroy, humanista ospetsuak besteen artean. Hauetako bi, Beza eta Hotman, ekarriko ditugu hona, Godefroytarrekin zuten antzekotasunarengatik.

Théodore de Bèze, Beza edo *Bezaeus*, Akademiako lehenengo errektorea izango dugu. Bere garaian egin zitzaion irudi baten aurrean jarriko bagina, eta Kalbinori egindako irudi batekin parekatuko bagenu, zeraz ohartuko genuke: bere bizar luze eta tristea, haren janzkera, musu eta begirada bekaitua, Kalbinorena bezalakoa zela. Akaso, bereiz litzakeen gauza bakarra, beren keinu baikorra izango zen. Kalbinorena askoz ere baikorra da Bezarena baino. Théodore de Bèze jakintsuari zor zaio *Codex Bezae* deituriko eskuizkribuaren aurkikuntza. Kodize honek Testamentu Berriaren grezierazko transkripzioa dakar. Garaiko jakintsuen interes filologikoa adierazten du.

Beza da Kalbinoren nortasunari leialtasunez eta fedez loturiko lehenengoetariko pertsonaia. Kausa kalbinistarekin buru-belarri sartutako eta opuskulo askoren egilea (anonimoki edo itxurazko izengoiti batekin). 1573. urtean, Genevako Kontseiluak horietako bat argitaratzeko autorizazioa ukatuko dio: *Du Droit des Magistrats sur les sujets*. Ez du axola. Handik gutxi barru izango dugu edizio anonimo bezala argitaratua –batzuek diotenez, ez Geneva bertan, baizik Heidelberg edo Lyonen–. San Bartolome Gauaren ondoren egindako panfleto honetan, magistratuek errege tiranoaren aurka matxinatzeko duten eskubidearen printzipioa agertzen zaigu. Ez zen izan garai hartan egindako panfleto bakarra. Jeneroa, nonbait, modan zegoen, eta horren antzera beste batzuk ditugu. Honekin frogatzen da tiranizidioaren ideia ez zela bakarrik luteranoen argudio bat errege eta gotzain absolutuen aurka joateko, bai kalbinistek, bai geroago batean katolikoek ere maneatuko duten argudio bat baizik. Luterok botere politikoaren aurka erresistentzia pazifikoa predikatu arren, bere ondorengoek ez zioten urratsez urrats jarraitu. Botere bidegabearen kontra matxinatzeko eskubidea monarkomakoek zekarten dotrina zen. Bezak ez dio segitu besterik egiten John Poneten *A short Treatise of Political Power* obrarekin zabaltzen den tiranizidioaren ideia-ri. Beste asko etorriko dira haren ondoren⁴³.

40. Lehenengo gauza, kultu katolikoa debekatzeko izan zen. Santuen irudiak txikitzea agintzen du. Santu eta errelikien kontrako amorruak jaioberrien izenak derrigorrean inposatzera eramaten du. Handik aurrera, haurrei emango zaizkien izenak Itun Zaharretik hartutakoak izango dira, eta ez Eliza Erromatar Apostolikoaren katalogoetatik. Ama Birjina aipatzea zigortu egingo da. Baita Kandelaria egunean kandelak bedeinkatzera eramatea, latinez eta hildakoen alde otoitz egitea, jai katolikoak ospatzea, barau eta haratuzteekin kunplitzea, eta antzeko debekazio asko eta asko. Ezkontza mistoak debekaturik daude, eta burutzen dutenak heresia kaltearen pean jartzen dira. Dantzak, kantuak, jokuak, jaiak eta beste asko debekatu egiten dira. Ohitura, bazkariak, liburuak, dibertsioak eta janzkerak bigilantziaren pean jarriko dira, eta hauek guztiak isunez eta kartzelaz zigortuko dira. Salaketa obligazio bat bihurtuko da. Genevatarrek "utz gaitzazue bakean" garrasi egingo dute azkenean. Baina berandu zen jadanik. Matxinoek biziarekin ordainduko dituzte askatasunaren alde egindako protestak edo, zorte onez, erbestearekin. MOREAU, E.; JOURDA, P.; JANELLE, P. "La crisis religiosa del siglo XVI". In: Fliche, A.; Martín, V. *Historia de la Iglesia*, Valentzia: Edicep, 1978; 18 eta 213 orr.; DELUMEAU, J. op. cit.; 59 eta 60 orr.

41. DELUMEAU, J. op. cit.; 60 eta 61 orr.

42. BENAVENT, J. *Actas del proceso de Giordano Bruno*, Valentzia: Institució Alfons el Magnanim, 2004; 81. or.

43. RENS, I. "En quoi les idées politiques de Théodore de Bèze et des monarchomaques protestants innovèrent-elles?". In: Schmidlin, B.; DUFOUR, A. op. cit.; 175. or.

Bezaren *Droit des Magistrats* obran azal-tzen zaizkigun ideiak (kontratu soziala, erresistentzia eskubidea, burujabetza popularra), geroko iraultza liberalen ideologiaren azpian kokatuko diren oinarrizko argudioak bilakatuko dira. Zaila egiten zaigu gaur bereiztea noraino ukitu dituen Bezaren filosofia politika honek Estatu Batuetako Independentzia Adierazpena edo 1789ko Frantziako Gizaki eta Hirirarraren Eskubideak. Baina ez dago ukatzerik Genevaren independentziarako baliozkoa izan zenik⁴⁴. Bere obra politikoa Jacques Godefroyren obra politikoa ekartzen digu gogora. Honen *Orationes politicae tres* obra tiraniaren kontrako printzipoaren alde agertzen da, eta Printzeak ezin duela legeen gainerik izan dio.

Hotman (*Hotomanus*, 1524-1590) da bigarrena. Hugonoteen buru zen paristar honek (pertsone jakintsua, idazle dotorea, filologo distiratsua, jurista eta humanista kritikoa eta kalbionista amorratua), San Bartolome Gautik txiripaz ateratzea lortu ondoren jo zuen Geneva aldera. Ez dut hemen bere jarduera politikoa⁴⁵ edo dozentea aztertu edo goraiatuko. Akademiako Zuzenbide Erromatarreko irakasle izan zela esan eta besterik ez. Nahiago dut filologo eta jurista bezalako lanean zentratu⁴⁶.

Bere trebezia ezagunek, irakurketa filologikoarekin, berehala bultzatu zuten klasikoen obrek kontaktuan jartzera. Bere obrarik ezagunenak, *Antitribonian ou discours d'un grand et renommé jurisconsulte de notre temps sur l'étude des lois* (1603an argitaratua, nahiz eta 1567an idatzia izan), ikaragarriko arrakasta izan zuen bere garaian. Ez zegoen bera baino argiagorik lan horretan. Justinianoren obran murgilduz, ez zuen ezer zutik utzi. Historialari, filologo eta jurista bezala zuen formazioak lagundu egin zion bide horretan. Esan bezala, hankaz gora jarriko du Zuzenbide justiniandarra, apokrifotzat eta ustelkeriaz hartuz. Tribonianok burututako interpolazioak zikindu zuen Justinianoren obra osoa. Eta honek ez zuen onartu bakarrik egin; pizgarritu egin zuen. Obra honen aurretik iturri klasikoekin egindako lanak (besteak beste XII Taulei eta Instituzio justiniandarrei eginiko azalpenak) baliagarri izan omen zitzaizkion *Corpus*-ean laban zorrotzena sartzeko. Bere tesia honako hau zen: Justinianoren garaiko instituzioak ez ziren, maila praktikoan, XVI. mendeko Frantziarako baliagarri. Ez ziren batere egokiak Familia eta pertsona Zuzenbidean, gauza Zuzenbidean, obligazioetan,

oinordetzan eta prozesuan aplikatzeko. Beraz, Hotmanek, ohitura Zuzenbidean oinarriturik, bultzatu nahi izango duena da *corpus* juridiko nazional bat Frantzia osorako⁴⁷.

4. Denis Godefroy

Godefroytarrei buruz, aita eta semea, albiste biografiko eskasak izan ditugu orain dela gutxira arte⁴⁸. Baina 1987. urtean, Bruno Schmidlin eta Albert Dufourrek bultzaturik, *Colloque* bat bildu zen Genevan bertan, honelako izenburu zuela: *Jacques Godefroy (1587-1652) et l'Humanisme juridique à Genève. Colloque* hartan aurkeztutako komunikazioak argitaratu egin ziren, eta guztiz lagungarri bilakatu dira erromanista eta Zuzenbide Historiako adituentzat⁴⁹.

4.1. Denis Godefroyren bizitza

Godefroytarrak Frantziako toga-aristokraziaren kide ospetsuak ziren. Jacquesen aitak, Denis Godefroyk (*Zaharra* izengoitiz ezaguna, jurista bera ere eta klasizista amorratua), garai haietan ohikoa zen bezala, latinizatu egin zuen bere jatorrizko izena: *Dionisus Gothofredus*. Pariseko *Ecole de Navarre* instituzioan izan zen hezitua, eta han bertan ekin zien ikasketa klasikoari. Zuzenbidea ikasi zuen. Lehenbizi Parisen bertan, François Baudouin maisu izan zuelarik, eta geroago Lovaina, Kolonia eta Heidelbergo Unibertsitateetan. Azken hiri honetan besarkatu zituen Eliza Erreformatuaren ideiak. Pariseko Unibertsitatean eskuratu zuen Zuzenbideko lizentziatura 1573an, eta handik zazpi urte geroago, 1579an, doktore izendatu zuten Orleansekoan. Bitartean, Bartolome Santuaren Gaueko sarraski famatuaren ondoren, beste hugonote askorekin batera, hanka egin behar izan zuen bere herritik, aterpe hiriak Geneva eta Heidelberg bihurtu zitzaizkiolarik. Ematen du bere desterrua ez zela iraunkorra izan, eta Frantziara joan-etorriak egin zituela. Halere, Geneva izan zen bere lehenengo aterpe hiria. Han eman zioten hiritar estatutua 1580an, eta hiri horren 200 Laguneko Kontseiluko kide izendatua izan zen.

Enrike IV.ak, Frantziako erregeak, hain itzal handiko jurista eta irakaslea berreskuratu egin nahi izan zuen. 1589an, Gex konderriaren *grand bailli* (korregidore antzeko bat) kargua

44. RENS, I. op. cit.; 177. or.

45. Besteak beste, Nafarroako Enrike IV.aren kontseilari izendatua izan zen.

46. DOMINGO, R.; DOMÍNGUEZ, V. "François Hotman". In: Domingo, R. op. cit.; 2 eta 227 orr.

47. PIANO-MORTARI, V. "L'humanisme juridique à Genève des origines jusqu'à Jacques Godefroy". In: Schmidlin, B.; DUFOUR, A. op. cit.; 33 eta 34 orr.

48. Ikus *supra* 6. bibliografia.

49. SCHMIDLIN, B.; DUFOUR, A. *Jacques Godefroy (1587-1652) et l'Humanisme juridique à Genève: actes du colloque Jacques Godefroy*, Bâle: Faculté de Droit de Genève-Bâle, 1991.

eskaini zion, eta honek onartu. Handik urtebete barru, Saboiako erregearen tropek konderrria hartu zutenean, bidali egin zuten Dionisio –bere etxea eta zeukan biblioteka miragarria kiskaldu eta gero–. Frantziak beste gutziaren bat eskainiko zion oraindik, horien artean, Bourgeseko Unibertsitatean *Cuiacius*-ek libre utzitako katedra. Baina ez zuen onartu. Aitzitik, han-hemenka ibili zen Frantziarekin zerikusi gutxi zeukaten honako hiru unibertsitate hauen artean: Estrasburgo, Heidelberg eta Geneva. Heidelbergo Unibertsitateko errektore izendatua izan zen 1607an, eta bertan zegoenean gertatu zen gudaroste inperialeko gudalburua zen Tillyren eraso, setio eta hirien erreketeta eta suntsidura beldurgarria. Berrero, etxea eta ondasunak kiskalirik, ihesari ekin behar izan zion, Estrasburgo aldera. Handik gutxira, hiri honetan bertan hilik suertatu zen. Bost seme-alaba utzi zituen. Horien artean, Jacques, aita bezala jurista, filologo eta humanista.

4.2. Denis Godefroyren norabide zientifikoa

Klasikoak irakurri eta itzulpenak egiteaz gainera, sinesmenak kolokan jartzea gustatu omen zitzaion. Hori dela-eta, esan bezala, protestantisismoaren bideari ekin zion. Godofredo *Zaharrak* –hala izan zen deitua–, Genevan bertan ekin zion bere obra nagusiari: Justinianoren *Corpus Iuris Civilis*-aren edizio berria –bertatik hasi zeon izen honekin ezagutzen–, *Littera Gothofrediana* izenez ezagutua, eta, hemendik aurrera, *Vulgata Bononiensis* edo boloniarra eta *Littera Florentina*-rekin konpetituko zuena (Lyon, 1583). Hau da, *Vulgata Bononiensis*-ekin (*Vulgata* boloniarra) parekotasun bat egin nahiean, Godofredoren *Corpus*-ari *Vulgata* humanistikoa deituko zaio.

Edizio honek Akursioren glosak eta, beste- en artean, Kuiazio eta Godofredok berak konposatutako nota kritiko propioak jasoko ditu. Godofredoren *notae* hauek, testuan agertzen ziren antinomiak argitzeko eta konpilazio osoan zehar aurkitutako pasaje paraleloak adierazteko balio zuten, filologo, historialari eta Zuzenbide justiniandarrak eta Ohitura Zuzenbide frantsesean aditu bezala zuen jakinduria azaleratuz. Inorekin parekatzekotan, Acursioarekin izan da parekatua. *Magna Glossa*-ren egileak bezala, garai bat itxi baitzuen. Esan dezagun, gaur egun bere *Corpus*-ak ez dituela bere gaurkotasun eta balioa galdu⁵⁰.

Littera Gothofrediana honen garrantzia eta lortutako hedapena sekulakoak izan ziren hurrengo bi mendeetan unibertsitate eta tribunaletan. Lortutako arrakasta, zenbait arrazoietan oinarritua zegoen. Dionisiok aspaldidanik frantses eskola kultural eragindako iturri erromatarrei buruzko ikerketa historiko-kritikoei egin zien kasu. Eskola honek *Vulgata* boloniarra abandonatu eta *Littera Florentina* (lehenago *Pisana* zena) eredutzat hartzen zuen testu berri bat finkatu nahi zuen. Honek grezierazko testuak errekueratzea suposatzen zuen. Hau dela-eta, lehenotik iturri buruz burututako lanak primerako materiala bihurtuko zaio Godofredori. Hau guztia nahikoa ez bada, *Corpus Iuris Civilis*-aren testu berria finkatzerakoan, kontu askorekin ibili zen testu kritikan existitzen ziren estremoak ekiditen, horrela askoz zabalagoa eta unibertsalagoa izan baitzen obraren ongi etorria.

Esan bezala, *Corpus Iuris Civilis*-aren txukunketa eta berreraiketa Godefroy baino askoz lehenago hasia zen. Horregatik, Godefroyren lanak, artikulu honen beste pasarte batean aipatu dudan bezala, zenbait oinarri izango ditu: Irnerio glosagilearen *Corpus*-ari buruzko glosak, Angelo Poliziano, Alziato (*Alciatus*), Antonio Agustín, Kuiazio (*Cujas* edo *Cuiacius*) eta beste batzuen anotazio kritikoak, Haloanderren *Corpus*-aren edizioa⁵¹, Torelliren *Digesto*-aren edizioa, Kuiazioaren beraren *Collectio graeca* obra, eta beste erudito batzuen obrak⁵².

Lehenago iturri zaharrak sakon arakatu zituela ez da zalantzan jartzen. Filologo eta historialari bezala zeukan jakinduria lan honetan aplikatu zuen. Honen ondorioz, Zizeronen obrari eginiko anotazio kritikoak ere argitaratuko zituen (*Notae in Ciceronem*, Lyon, 1588). XII Taulen lehenengo berreraiketa eta bilduma saiakera burutuko du –eta *Leges XII tabularum ex veterum monumentis decerptas*–. Beraz, glosagile eta glosagileondokoei iturri bakartzat jotzen zuten *Corpus Iuris* obraz gainera, beste iturri ere ekin zien. Horien artean, Ulpianoren *Tituluak* (*Tituli ex corpore Ulpiani XXIX*), Pauloren *Sententziak* (*Juli Pauli receptarum sententiarum ad filium libros V*) eta Gayoren *Instituzioak* (*Caji institutionum duos libros*).

Bere lana ez zen Antzinateko iturrien argitalpenarekin agortu. Jurista bezalako lanari Lege feudalen bilduma bat ere zor diogu (*Epitome feudorum*). Baita Zuzenbide Kanonikoaren bilduma bat ere (*Fontes iuris canonici*, Lyon, 1583). Egungo praktika juridikoari buruzko zenbait lan (*Praxis civilis ex antiquis et recentioribus auctori-*

50. ANDRÉS, F. J. “Denis Godefroy”. In: Domingo, R. *Juristas universales*, Madril: Marcial Pons, 2004; 2, 285 eta 286 orr.

51. Haloanderrek berak burutu zuen *Florentina*-n oinarritutako Digestoaren lehenengo argitalpena. WIEACKER, F. *Historia del Derecho privado de la Edad Moderna*, Madril: Aguilar, 1957; 116. or.

52. ANDRÉS, F. J. op. cit.; 286. or.

bus..., Fráncfort del Meno, 1591); Historiari buruzkoak (*Quaestiones politicae ex iure communi et historia desumptae*, Estrasburgo, 1598); zenbait instituzio juridikoren inguruko burutapenak (*Problemata de obligationibus ex contractu et quasi contractu*, Estrasburgo, 1601; *Conclusiones de emptione et venditione*, Estrasburgo, 1603). Eta bere garaian bereganatutako konpromiso politikoari buruzko beste zenbait obra kritiko ere, Eliza Erreformatuaren alde eta Erromako Elizaren kontra (*Maintenue et défense des princes souveraines et églises chrétiennes contre les attentats, usurpations et excommunications des papes de Rome*, Geneva, 1592). Hona hemen, bada, Errenazimenduko benetako pertsonaia bat, Jacquesek eredu nagusizat izango duena⁵³.

Irakaskuntzan ere, edonon sumatzen da berak izandako arrakasta. *Mos gallicus*-aren metodo sistematikoa sartu zuen Heidelbergeko Unibertsitatean, hango errektore izan zenean. Eta han burututako ikasketen erreforma pasa zen beste unibertsitateetara ere, horien artean Estrasburgokora. Unibertsitate honetako estatuak zioen Pandektetako irakasleak eguneroko bizitzan baliozkotzat jotzen ziren gaiak irakurri behar zituela. Testua garaiko entzumenetara egokitu behar zen, ikasleak –*generalis iuris cognitionem*– eskura zezan⁵⁴.

4.3. Denis Godefroyren obrak

Notae in Ciceronem, Lyon, 1588; *De ratione ordinis a iurisconsulto in Pandectis, Codice et Institutionibus servati*, Geneva, 1580; *Notae in quattuor libros Institutionibus*, Geneva, 1580; *Fontes iuris canonici*, Lyon, 1583; *Opuscula varia iuris...*, Geneva, 1586; *Iustiniani Corpus Iuris Civilis cum notis Gothofredi*, Lyon, 1589; *Tractatus ad ius varii*, Lyon, 1590; *Praxis civilis ex antiquis et recentioribus authoribus...*; Fráncfort del Meno, 1591; *Maintenue et défense des princes souveraines et églises chrétiennes contre les attentats, usurpations et excommunications des papes de Rome*, Geneva, 1592; *Consuetudines civitatum et provinciarum Galliae*, Fráncfort del Meno, 1597; *Quaestiones politicae ex iure communi et historia desumptae*, Estrasburgo, 1598; *Problemata de obligationibus ex contractu et quasi contractu*, Estrasburgo, 1601; *Conclusiones de emptione et venditione*, Estrasburgo, 1603; *Disputationes ad*

digestum Justiniani, Estrasburgo, 1604; *Dissertatio de nobilitate*; Espira, 1611; *Statuta Gallia juxta Francorum, Burgundionum, Gothorum et Anglorum in ea dominationum consuetudines*, Fráncfort del Meno, 1611. Obra hauez gainera, badakigu *Epitome feudorum* bat eta *Leges XII tabularum ex veterum monumentis decerptas, Tituli ex corpore Ulpiani XXIX, Juli Pauli receptarum sententiarum ad filium libros V*, eta *Caji institutionum duos libros* ere idatzi zituela⁵⁵.

5. Jacques Godefroy

5.1. Jacques Godefroyren bizitza

Geneva hiri kalbinistan jaio zen Jacques, 1587ko irailaren 13an. Bere bataioko ur-bedeinkatua Théodoro de Bèze jaunaren eskuetatik isuri zen, aita ponteko gisa Jacobus Lectius zuela; hau da, Estatu ginebrinoaren punta-puntako errepresentazioa⁵⁶.

Jacques Godefroy, *Jacobus Gothofredus*⁵⁷, izan da, beraz, humanismo juridikoaren ordezkari nagusietako bat. Pertsona errenazentista baten kualitateak biltzen zituen bere baitan: juriskontsultu, teologo, historialari, filologo, humanista eta erromanista kualifikatua. Aita bera izan zuen prezeptore. Eta ikusi dugu zer nolako kualitateak biltzen zituen aitak. Hala ere, Paris eta Bourgeseko Unibertsitateetan egin zituen Zuzenbide eta Historia ikasketak, eta azken Unibertsitate honetan burutu zuen bere doktoretza⁵⁸.

5.2. Jacques Godefroyren norabidea

Filologo eta klasizista bezala, bere obra aberatsa eta emankorra azaltzen zaigu. Batez ere, zenbait obra klasikoren berreraiketan. Hala nola, *Vetus orbis descriptio* (1618) geografia tratatu zaharra, grezierazko jatorrizko originala berreraikiz. Zizeronen obra anotatua (1616). Tertulianoren obra ineditoaren anotazio eta argitalpena (1625). Ikus daitekeenez, Hotman, Kalbino edo aita bera ibilitako bide berberetik abiatuko da. Aurrez klasikoen obrak azterturik, XII Tauletako lehenengo konpilazio baten osaketa eta argitalpena (1616) burutuko du. *Lex Iulia de maritandis ordinibus* lege augustarraren publikazioa. Eta, horren antzera, pretorearen *Edictum*

53. PIANO-MORTARI, V. op. cit.; 39. or.; C.M.P. in MICHAUD, L.G. *Biographie Universelle, Ancienne et Moderne*, Paris, 1843-1865; 17 eta 17-18 orr.

54. WIEACKER, F. op. cit.; 164. or.

55. Azken argitalpen hauen berri izateko, 1740. urtean Leipzigen Christophorus Barthelusek burututako obrak baliatu naiz. Besteentzako, GUZMÁN, A. "Denis Godefroy". In: Domingo, R. op. cit.; 2, 286 eta 287 orr.

56. GODEFROY-MENILGLAISE, D.C. *Les savants Godefroy, mémoires d'une famille pendant les XVI, XVII et XVIII siècles*, Paris: Didier & Cie, 1873 (repr. Geneva, 1971); 67. or.

57. MENTXAKA, R.; TAMAYO, J. A. "Jacques Godefroy". In: Domingo, R. op. cit.; 347-352 orr.

58. GODEFROY-MENILGLAISE, D.C. *Les savants Godefroy*; 68. or.

TAMAYO ERRAZQUIN, José Ángel. *Mos gallicus* edo Humanismo juridikoaren bi ordezkari: Denis eta Jacques Godefroy. *Eleria*. 14, 2005, 65-83



perpetuum-aren argitaratze saialdia (Geneva, 1617)⁵⁹. Baina, iturri klasikoaren txukunketa eta berreraiketa jarduera honetan, *Codex Theodosianus* edizioari eman zion dedikaziorik gehiena. Obra honetan sartu zituen ordu gehienak. Berak aitortu zuenez, hogeita hamar urte eman zituen lan horrekin. Eta hala izan beharko, azken finean ikaragarriko obra hau bere obra postumoa bihurtu zen-eta (1665). Edizio hau, lauki kronologiko eta nota kritiko eta historiko aberatsez josirik dago. Adituek diotenez, kalitatearen aldetik Kuiazioaren edizioa (1566) gainditzen du, eta gaur egun kontsultagai izaten jarraitzen du erromanista eta historialarien artean⁶⁰.

Jurista bezala, ez zituen, glosagileek eta bartolistek egiten zuten antzera, *Pandektak* sakralizatu. Bere iritzian, behar-beharrezkoa zen Antzinaroko iturriak benetako ikuspegi garten batekin irakurri eta aztertzea. Iturrietara hurbiltze saio horretan erabili beharreko metodoak aurreiritzik gabekoa izan behar zuen, nola ez, *historicae et philologicae lumine cognitio-nis*⁶¹. Horrela zioen beste obra postumo batean, *Novus in titulum Pandectarum de diversis regulis juris antiqui Comentarium* (Geneva, 1653): arau juridikoak, *regula iuris*, kasuan du bere jatorri genetikoak, praktikaren kasutik jaiotzen da, eta bertatik abiatu behar du arauak eratu eta burutu arte. Horretarako, azterketa filologiko eta historikoa aplikatu behar da. Beraz, benetako adierazpen juridikoa errealitatean datza, eta ez arau hutsak duen balio axiomatikoan. Horrela, arau juridikoa ez zen esaldi huts bat izango, baizik eta errealitate eta esperientzia konprimituaren adierazpen baliagarri bat, eguneroko bizitzaren arazoei soluzioak emateko balio dezakeena⁶².

Honetaz aparte, eztabaida juridiko askotan hartu zuen parte. Esate baterako, lapurrei aplikatu beharreko zigorre buruz izandakoan, *Disputatio juridica de furtis* (Geneva, 1628), torturari buruzkoan, *Disputatio juridica de quaestionibus seu tortura* (Geneva, 1628), eta gizakiei dagokien askatasun naturalari buruzko eztabaidan, esklabotza eta Kristautasuna bateraezinak kontsideratuz, *Disputatio juridica de justitia, jure et statu hominum* (Geneva, 1620)⁶³.

Irakaskuntza mailan ere, historia, filologia eta erlijioarekin gertatu zen bezala, aitaren ereduari jarraituz, irakaskuntzari dedikatu zion bere bizitzaren zati garrantzitsuenetako bat. 1619. urtean Genevako Unibertsitatean irakasle izendatua izan zenetik, hil arte jarraitu zuen bertako irakasle izaten⁶⁴. Irakatsitako materia, berak burututako manual edo eskuliburu batean zegoen oinarriturik: *Manuale juris seu parva juris mysteria*. Arrakasta handiko eskuliburua. Hortxe haren hamalau edizioak, frogatzeko. Humanismo dotorearen eredu dela esan ohi da. Egia esan, eskuliburu honek hiru eskuliburutxo jasotzen zituen bere baitan. Lehenengo bat, Zuzenbide ikasketetan hasiberriei zuzendua, sarrera historiko batekin eta Justinianoren Digestotik hartutako parteetako arau juridikoen bilduma batekin. Bigarren batek, beste maila goragoko zailtasunak zituela, Zuzenbidearen zenbait iturri azaltzen zituen: *Lex Duodecim Tabularum, Lex Iulia et Papia*, Sabinoren Zuzenbide zibileko liburuak... Eta hirugarren bat, gaur egun galdutzat ematen dena, kasu eztabaidatsuz osatutako bilduma bat, azterketari egokitua⁶⁵.

Historia arloan ere zenbait lan burutu zituen. Horien artean garrantzitsuenetako bat, argitaraturik suertatu bazen behinik behin, Genevako historiari dedikatutakoa dugu. Godefroyek nota eta dokumentu asko omen zeuzkan helburu horrekin bilduak. Hil ondoren, paper horiek guztiak Genevako Goi Batzorde Nagusiak, *le Petit Conseil*, konfiskatu eta "Leize Txikian", *la Petite Grotte*, hiriko sekretuen xedea zena, giltzapean gorde zituen. *Petit Conseil* honen jokaera misteriotsu samar azaltzen zaigu. Nonbait, Godefroyek Genevako historiari buruz bildutako dokumentuetan mantentzen zituen iritziak ez omen zetozen bat gobernuaren linea ofizialarekin.

Honekin ziur asko zerikusiren bat izango zuen aipatutako *Petit Conseil* honek Godefroyren epitafioarekin izandako jokaerak. Gure erromanistak, bere heriotza egunerako epitafio bat idatzi, eta bere hilobiaren hilarrian jartzeko agindu zuen. Epitafio horren hitzen atzetik edo lerro artean, hiriko gobernuak bere zenbait lanekin izan zuen portaera maltzuraren kontra kritika bat ezkututzen zen. Eta gehiago oraindik, hilobian jarri beharreko epitafio horrek publikoki deskubritzen zuen paper

59. SCHMIDLIN, B. "L'humaniste Jacques Godefroy". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. op. cit.: 65. or.

60. SCHMIDLIN, B. op. cit.: 62. or. Zergatik aukeratu du Godefroyek Kode Teodosianoa? SCHMIDLINen iritziz, historialari batentzat benetako erronka zelako. Berak idatzitako noten bidez, konstituzio inperialtan azaltzen den bizitza sozial eta juridiko osoa ekartzen zaigu gogora. *ibidem*, 67.

61. SCHMIDLIN, B. op. cit.: 75 eta 62. orr.

62. Obra honetarako arau juridikoak Justinianoren Digestotik hartuak dira (Dig. 50,17 titulu osoa arauetz pilaturik dago). Godefroyek Pauloren pasarte bat du aztergai. SCHMIDLIN, B. op. cit.: 68 eta 71 orr.

63. DUFOUR, A. "Hommage". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. op. cit.: 16. or.

64. GODEFROY-MENILGLAISE, D.C. *Les savants Godefroy*, Paris: Didier & Cie, 1873; 72. or.

65. SCHMIDLIN, B. op. cit.: 72.or.

horien existentzia. Kontuan izan dezagun, gainera, bere hilobia katedralaren klaustroan bertan eraiki zela. Beraz, jende guztiaren begien aurrean. Hau dela-eta, *Petit Conseil* horrek debekatu egin zuen epitafioa jartzea. Hauxe izan liteke epitafioaren pasarte diskutigarriena: *unaque jacent quae patriae, ecclesiae, orbi literato proxime destinabat compluria, a vulgi erroribus, ab officiiis nonnullorum, a praepostera demum quorundam ambitione vindicata. Dolenda jactura*. Hau da: honekin batera (gorpua) hilobiratzen da, aberriari, Elizari eta mundu kultuari dedikatutako eta argitaratzeaz ziren lan askok vulgoaren errorea, hemengoan iluntasuna eta hangoen antsia gainean izan arren. Egin ezazue negar galera honengatik. Lan *compluria* horiek ez zuten arrasto makalik utziko⁶⁶.

Ematen du Genevako historiari buruzko interes hori Jean Guillemart artzain protestanteari egindako dokumentuen konfiskazioak suspertu ziola. Jean Guillemart hau erlijio kalbindarraren aurka matxinatu omen zen, eta Godefroyri tokatu zitzaion, hiriko agintzaritzan zegoenez, matxinada kontrolatu, dokumentuak konfiskatu eta artzaina interrogatzea. Hiriari buruzko dokumentazio hori aztertu ondoren, bera izan zen dokumentu horiek ezkutatzea agindu zuena⁶⁷.

Lehen aipatutako kalitateaz gainera, edo guztien gainetik, Estatu-gizona izatearena zen garrantzitsuenetako bat. Esan dezagun bere jakinduria eta esperientzi osoa eguneroko praktika politikoari josten eta aplikatzen aritu zela, egin behar honetan trebetasun handia azalduz. Eta hau guztia Geneva hirian gertatu zen. Konfederazio Helvetikoan oraingoz onarturik ez zegoen Estatu txiki horrek, gorago esan dudana bezala, garrantzizko kokagune geostrategikoa zeukan. Frantzia eta Italiaren arteko bide arrunt eta naturalean kokaturik, monarkia absolutua finkatzen ari zen garai beldurgarri horretan, bi potentzia politikoen artean: Frantzia, alde batetik, eta Saboiako erreinua –hau da, saboiar hispaniarren interesak babesten zituen Estatu–, bestetik. Interes ekonomikoak –komertzialak bereziki, suitzarren probetxuaren mesedetan kontrabandoa nahiko zabaldua omen zelako–, interes militarrik –lur-gudarosteak handik honuntza bertatik pasa beharrean zirelako– eta, azken finean, interes politikoak –Italia aspaldidanik, eta Alemania protestantismoa lehertu zenetik, eremu beliko bihurtuak

zirelako, batez ere bigarren hau, 30 Urteko Gerraren eszena-toki odoltsuaren zentrua bilakatu baitzen– azaltzen ziren potentzia politiko hauen tira-biratan.

Arlo teoriko mailan, *Le Mercure jésuite* obraren atalaitik jesuiten eta Richelieu kardena-laren politikaren kontrako gezi zorrotzak jaurti zituen⁶⁸. Baina halako eztabaida politiko-teorikoak ez ziren Godefroyren gustukoak. Estatu-gizon trebezia eguneroko jarduera praktikoetan demostratu behar zen. Genevako Gobernuaren goi mailako Kontseiluen batzarkide izendatzeaz gainera, Estatuaren lehen mailako enbaxadore izatera iritsi zen⁶⁹. Frantzia, Saboia eta Alemania Estatuen aurrean enbaxadore bezala izandako eskusartzeak, gorago aipatutako arrazoiengatik, funtsezkoak eta delikatuak izan ziren.

Politika teorikoa eta politika praktikoa, beraz, uztartu zituen. Horren adibide aipagarriena, berak asmatutako eta publikoki adierazitako aipatutako hiru diskurtsoetan dugu, *Orationes politicae tres*⁷⁰. Obra hirukoitz honek garaiko absolutismoaren kontra eta sistema federatzaile eta demokratikoaren aldeko akuilu bat izan nahi zuen. Aipatutako diskurtso hauek 1622. urtean izan ziren errezitatuak. Har dezagun kontua zer nolako esparru politiko eta militarrean kokatzen diren: 30 Urteko Gerrako fase bohemio-palatinoan (1618-1623); hau da, gerraren lehenengo fasean. Protestanteen Batasuna eta Liga Katolikoa ditugu muturrez mutur. Liga absolutistako katolikoek Palatinadoa inbaditzen dute, Spinola eta Tilly katolikoaren gudarosteen buru direlarik. Tillyren gudarosteak Heidelberg setiatu, kiskaldu eta bereganatu egingo du. Godefroyek gauza baliotsu asko galduko ditu sarraski horretan: aita, etxea eta familiaren ondasunez gainera, babesleku bat (Palatinadoan errepublika kalbinistei, Genevari bereziki, eskaintzen zitzaian babesa).

Katolikoek Palatinadoa, Westfalia eta Sajonia behea menderatu ondoren, katolizatzeari ekiten diote berriro. Beraz, Godefroyren aipatutako hitzaldi hauek guztiz ulergarriak bilakatzen zaizkigu. Akeotarren Liga eredutzat hartuz, Godefroyek Kalbinismoaren irudia ekarri nahi digu. Kalbinismoa, akeotarren antzera, absolutismoaren kontra altxatzen da. Herri libreen alde ari da. Herri horiek elkartzeko eta federazio libre bat osatzeko

66. SANTSCI, C. "Jacques Godefroy, historien de Genève". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. op. cit.; 81. or.

67. SANTSCI, C. op. cit.; 91. or.

68. *Le Mercure jésuite ou Recueil de pièces concernant les progrès des jésuites, leurs écrits et différens: depuis l'an 1620 iusqu'à l'année 1626*, Geneva, 1626, 1630, 1631. Honi buruz, ikus: TURCHETI, M. "Jacques Godefroy et le Mercure jésuite". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. op. cit.; 137-145 orr.

69. Genevako Errepublikako 200 Laguneko Kontseiluko (1619), 60 Laguneko Kontseiluko (1622) eta Kontseilu Txiki (Le Petit Conseil zen Estatuaren errepresentazio nagusia) (1629) batzordekide izendatua. Hiriko sindikoa bizpahiru aldiz (1637, 1641, 1645, 1649). Estatu-idazkaria (1639tik 1636ra). Enbaxadore moduan Frantzia, Saboia, Alemania eta Konfederazio Helvetikoaren aurrean. GODEFROY-MENILGLAISEk esandakoari segitu diot, op. cit.; 69 eta 74. orr.

70. *Orationes politicae tres: Ulpianus, seu de majestate principis legibus soluta; Julianus, seu de arcanis Juliani imperatoris artibus ad religionem christianum profligandam; Achaica, seu de causis interitus reipublicae Achaeorum*, Geneva, 1634.

duten eskubidearen alde. Liga akeotarra izan dai-teke herri horien ispilu eta eredu. Haien oinarri historiko eta teoriko-politiko bat.

Hala ikus dezakegu horietako lehengoan⁷¹. Ulpianoren *princeps legibus solutus est*⁷² printzipio atzerakoi eta erreakzionarioa gogora ekarriz, printzeak ezin duela, inolaz ere, legeen gainetik izan dio Godefroyek: *non est princeps supra leges, sed leges supra principem* (printzea ez dago legeen gainetik, baizik legeak printzearen gainetik). Honetan ez du Kalbinok esandakoari segitu besterik egiten⁷³. Baina hirugarren diskurtsoa da, lehen aipatutako akeotarren elkarteari buruzkoa, ene iritiz, gaurotasun eta atrebentzia gehien daukana: *Achaïca, seu de causis interitus reipublicae Achaeorum* (Akaika edo akeotarren errepublikaren suntsiduraren kausei buruz). Berrito ere Antzinasun klasikoa eredu. Oraingoan, K.a. III-II. mendeetan greziarrek osatutako Liga Akeotarra da gure juristak gogora ekartzeko diguna. Ematen du Geneva hiriarekin parekotasuna adierazi nahi duela. 1622ko ekainaren 11n Genevako 200 Laguneko Kontseiluak egindako juramentuak, non kontseilukideek inongo pritzerengandik diru edo oparirik ez onartzea hitz eman zuten, Liga Akeotarren Oinarritzko Legeak ekartzen dizkigu gogora⁷⁴.

Bere testamentu itxi eta sekretua orain dela gutxi aurkitu eta argitaratu da: *Testament solemn de Noble et honoré Seigneur Jacques Godefroy (2 de mai 1651)*. Bertan, lehenengoz eta kristau on baten antzera, bere arima Jaungoikoari gomendatzen dio. Bigarrenik, *le fondement d'ung bon et vatable testament est l'institution hereditaire* gogora ekarriz, oinordekoak izendatzen ditu, eta ondoren, bere ondasun guztiak oinordeko eta legatarioen artean banatzen ditu.

5.3. Jacques Godefroyren obrak

De statu paganorum sub christianis imperatoribus, seu commentarius ad titulum X de paganis libri XVI Codicis Theodosiani, Leipzig, 1616; *Fragmenta duodecim Tabularum, suis nunc primum tabulis restituta, probationibus, notis et indice munita*, Heidelberg, 1616; *M. Tullii Ciceronis Opera, cum notis Lambini et Gothofredi*, 1616; *Fragmenta Legum Juliae et Papiae*, Geneva, 1617; *Fontes IV Juris civilis, sive Leges XII Tabularum, cum eorundem historia...*; *Legis Juliae et Papiae fragmenta; Edictum perpetuum; Librorum sabinianorum ordo ac series*, Geneva, 1638 eta 1653; *Conjectura de suburbicariis regionibus et ecclesiis, seu de episco-*

pi urbis Romae diocesi, Francfort, 1617; *Vetus orbis descriptio graeci scriptoris*, Geneva, 1618; *Opuscula varia, juridica, politica, historica*, Geneva, 1644; *Orationes IV Libanii sophistae*, Geneva, 1631; *Libanii Antiocheni Pro templis gentilium non excindendis, ad Theodosium M. imp. Oratio*, Geneva, 1634; *Orationes politicae tres: Ulpianus, seu de majestate principis legibus soluta; Julianus, seu de arcanis Juliani imperatoris artibus ad religionem christianum profligandam; Achaïca, seu de causis interitus reipublicae Achaeorum*, Geneva, 1634; *Diatriba de cenotaphio, deque diversis, super eius religione, Ulpiani et Marciani sententiis diatriba*, Geneva, 1634; *De Dominio seu imperio maris, et jure naufragii colligendi ὑμὸνμυα, lege Rhodia*, Geneva, 1637 eta 1669; *Notae in Tertulliani ad nationes libros II ineditos*, Geneva, 1625; *Dissertatiunculae duae de tutela et cura*, Geneva, 1625; *Diatriba de Jure Praecedentiae*, Geneva, 1627; *Animadversiones Juris civilis pro vero nonnullarum legum intellectu et genuina earundem lectione*, Geneva, 1628; *Philostorgii Cappadocii ecclesiastica historia libri XII*, Geneva, 1642; *Dissertationes duae Juridicae: 1º de nuptiis consobrinorum; 2º De testamento tempore pestis condito*, Geneva, 1642; *Dissertationes quinque*, Geneva, 1645; *Exercitationes duae de ecclesia et incarnatione Christi*, Geneva, 1643 eta 1649; *De fidejussoribus et famosis latronibus investigandis dissertatio*, Geneva, 1652; *Novus in titulum Pandectarum de diversis regulis juris antiqui commentarius*, Geneva, 1653; *Opuscula varia, juridica, politica, historica, critica*, Geneva, 1654; *Codex Theodosianus*, Lyon, 1665; Leipzig, 1736-1745; *Tractatus novus et practicus de salario*, Geneva, 1656 eta 1666; *Le Mercure lesuite ou Recueil de piéces concernant les progrès des jésuites, leurs écrits et differents: depuis l'an 1620 iusqu'à l'année 1626*, Geneva, 1626, 1630, 1631; *Manuale Juris, seu parva juris mysteria*, Geneva, 1676; Lyon, 1684; Paris, 1806; *Textes inédites de Jacques Godefroy, ou relatives à son oeuvre historique et juridique* (bere testamentua dakarrena) in Schmidlin, B.; Dufour, A. *Jacques Godefroy (1587-1652) et l'Humanisme juridique à Genève: actes du colloque Jacques Godefroy*, Faculté de Droit de Genève-Bâle, Bâle, 1991; 267-293. orr.

6. Ondorio gisa

XVI. mendeko Humanismoa, Erreforma eta Humanismo juridikoa, hirurak, hari ikusezin bereberaz lotuta baleude bezala azaltzen zaizkigu.

71. Ikus Godofredoren *Ulpianus, seu de majestate principis legibus soluta* diskurtsoari buruz DUFOURrek dioena, "Quelques aspects de la pensée politique de Jacques Godefroy". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. op. cit.; 118-124 orr.

72. Dig. 1,3,31 orr.

73. Senekaren *De clementia*-ri egindako azalpena, *Opera omnia*, 5,23.

74. DUFOUR, A. "Quelques aspects de la pensée politique de Jacques Godefroy". In: Schmidlin, B.; Dufour, A. op. cit.; 124. or.

Jakinduria asetu gabearen gose eta egarria, iturri garbietara jotzeko joera naturala, garai hartako pertsonaien izaera kritikoa, Eskolastikak eta jurista mediebalek inposatutako morrointzarekin bukatzeko borondate irmoa haien aurkikuntzen bidez, edizio berriak argitaratzearen bidez, nortasun eta jarduera zuhurraren bidez, jakinduria eta zientzia bereganatzeko jarrera guztiz positiboa... Erreforma eta Humanismo juridikoaren artean harreman sendo bat izan dela frogatzeko, elementu bat baino gehiago dago. Humanistak, iturri garbietara jotzeko nahiak bultzaturik, hizkuntza klasikoak ikasiko ditu. Erreformatzaileek ere, Jaungoikoaren benetako hitzak zeintzuk izan ziren jakiteko asmoz, Antzinatasuneko hizkuntzak ikasteari ekin zioten. Humanistek ez zuten glosagile eta glosagileondo-koek iturri bakartzat eta sakratutzat eraikitako *Corpus iuris* onartzen. Erreformatzaileek ere ez zuten Erromako Elizak inposatutako Bibliaren *Vulgata* bertsioa onartzen. Humanistak tiranizidio ideiarene alde jarri ziren, eta, era berean, erreformatzaileak printze absolutuaren aurka altxatzeko eskubidearen alde azaldu ziren.

Pertsonaia hauek bizi ziren garaia beldur-garri azaltzen zaigu alde batetik, baina oso positiboa eta argia bestetik. Haien portaera heroikoa izan al zen? Neurri batean, eta Inkisizioaren ziegatan zazpi urtez egondako Giordano Brunoren irudia erakartzen badugu gogora, erantzun behar-ko genuke baietz. Erdi Aroaren iluntasunetik ateratzear zegoen gizarte berri hau, nazioarteko gerraren garrasiz eta heretikoaren ke usainaz nahasturik eratzten ari zen une hartan. Haiek aurreratutakoak etorkizun libre bat zekarkigun. Argien Mendea, lehendabizi, eta Zientzia eta Teknologiaren Mendea, geroago.

Halere, erreformatzaileek absolutismo eta tiraniaren kontra burututako doktrina ahaztu eta baztertu zutenaren antzera, humanistek ere jende xumearen eguneroko beharrak ahaztu egin zituzten nolabait. Unibertsitateetan eta mundu kultu baten barnean itxi ziren. Ez zuten kontuan izan Zuzenbideak, azken finean, balio praktiko bat duela.

Bibliografia

Monografiak eta artikulak

- BELLOT, P. F. "Notice sur Jacques Godefroy". In: *Bibliothèque universelle de Genève*, Geneva, 1837.
- BORGEAUD, C. *Histoire de l'Université de Genève: l'Académie de Calvin, 1559-1798*, Geneva: Georg & Co, 1900.
- CALASSO, F. *Introduzione al diritto comune*, Milan, 1951.
- CANNATA, C. A. *Lineamenti di Storia della giurisprudenza europea. Del medioevo all'epoca contemporanea*, Torino: Giappichelli, 1980.

- COING, H. *Europäisches Privatrecht*, 1, München, 1985 = *Derecho Privado europeo*, 1, Madrid: Revista Jurídica del Notariado, 1996.
- DELUMEAU, J. *Naissance et affirmation de la Réforme*, Paris, 1967 = *La Reforma*, Bartzelona: Labor, 1976.
- DOMINGO, R. *Juristas Universales*, Madrid: Marcial Pons, 2004.
- GODEFROY-MENILGLAISE, D. C. Marquise de. *Les savants Godefroy*, Paris, 1873 = Paris: Didier & Cie, 1971.
- KOSCHAKER, P. *Europa und das Römischerecht*, München, 1966 = *Europa y el Derecho romano*, Madrid: Revista de Derecho Privado, 1955.
- NICERON, J. P. *Memoires pour servir à l'histoire des hommes illustres dans la république des lettres avec le catalogue raisonné de leurs ouvrages*, Paris, 1728-1738.
- PARKER, G. *The Thirty Years' War*, London-New York, 1984 = *La Guerra de los Treinta Años*, Bartzelona: Crítica, 1988.
- SCHMIDLIN, B.; DUFOUR, A. *Jacques Godefroy (1587-1652) et l'Humanisme juridique à Genève: actes du colloque Jacques Godefroy*, Bâle: Faculté de Droit de Genève-Bâle, 1991; 19-26 orr.
- STEIN, P. *Römisches Recht und Europa. Die Geschichte eines, Rechtskultur*, Frankfurt am Main, 1996 = *El Derecho romano en la historia de Europa. Historia de una cultura jurídica*, Madrid: Siglo XXI de España, 2001.
- TROTZ, CH. *Praefatio Gothofredus, Jacobus, 1587-1652: Opera juridica minora sive Libelli, Tractatus, Orationes et Opuscula rariora et praestantiora*, Leyden, 1733.
- WESENBERG, G.; WESENER, G. *Neuere deutsche Privatrechtsgeschichte im Rahmen der europäischen Rechtsentwicklung*, Wien-Köln-Graz, 1985 = *Historia del Derecho privado moderno en Alemania y en Europa*, Valladolid: Lex Nova, 1998.

Hiztegi eta entziklopediak

- C.M.P. in Michaud, L.G. *Biographie Universelle, Ancienne et Moderne*, Paris, 1843-1865; 17-18. orr.
- Der neue Pauly: Enzyklopädie der Antike*. arg. Cancik, H.; Schneider, H. Stuttgart - Weimar - Metzler, 1996.
- FLICHE, A.; MARTIN, V. *Historia de la Iglesia*, Valentzia: Edicep, 1978; 17 eta 18. aleak.
- LOUVET, L. in Didot, F. *Nouvelle Biographie générale*, Paris, 1855-78; 20, 902-904 orr.
- Paulys Realencyclopädie der classischen Altertumswissenschaft*, Stuttgart, 1893 - Munich, 1974.